




Iban
Urdangarin
bertsolaria
Gipuzkoako
txapeldun

Segurako
dantza
txapelketa

Beasain
oraindik ere
jaietan

Aizkorriko Lagunen Elkartea



uda hau



gozatu



BEASAINGO UDALA



AIZKORRIKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Diputación Foral de Gipuzkoa

Goierria eta Ibañeta Departamentua

Departamento de Juventud y Deporte



ANTZIZAR

BARROKOTIA

Boni-etxe

igeltseritza orokorra



© 616 921 502 ©

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.

**Egurrezko
egitura
tratatuak**



**AURREKONTUAK
NEURRIRA**

**Edozein motatako teilatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar**

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

Tel-Faxa: 943 16 10 32

Maiuz Industrialdea, 26. pab.

ORDIZIA

Non zer

- 5 Segurako dantza txapelketa
 6 **AHOLKUA:** Erreklamazio orriak
 7 **TXANDAKA:** Joxepa Madariaga
 9 **KATE MOTZEAN:** Joxe Antonio Barandiaran
 10-11: Aizkorriko Lagunen Elkartea
 12: 'Sexua, zer axola' kanpaina
 13: Beasaingo jaiak
 14-25 **KRONIKAK**
 IDIAZABAL 14: Artisau eguna
 ZEGAMA 15: Arantzazura peregrinazioa.
 SEGURA 16: San Joan jaiak
 LAZKAO 17: 35 ordu
 ATAUN 18: Iban Urdangarin txapeldun
 ORMAIZTEGI 19: Gorka Izagirre txapeldun
 ZALDIBIA 20: Ekintza ugari
 BEASAIN 21: Jaiak.
 ZERAIN 22: Mendi irteera
 LEGORRETA 22: Haur antzerki topaketa
 ORDIZIA 23: Otegi-enea eta Majoriko jaiak
 GABIRIA 14: Plazako berritze lanak
 26: **KIROLAK:** Herri-kirol jaialdia Beasainen
 28-29: **AGENDA**
 30 **FOTO ZAHARRA:** zegamarrak

Patxi Zubizarretaren 'Usoa' ipuinarekin laburmetraia egingo da



Ordiziako Patxi Zubizarretak idatzita-ko 'Usoa, hegan etorritako neskatoa' ipuina zinemara eramango du Maria Zamakola zine zuzendariak. Euskaraz-ko laburmetraia egingo dute. Afrikatik Europara etorritako Kasai neskatoaren istorioa kontatzen du 'Usoak'. Lasarte-Oriako Landaberri ikastolako bi neskato izango dira aktoreak. Jatorriz kamerundarra den zortzi urteko Leticia Titi eta Irati Irizar. Amaren pape-ra Olatz Beobide aktoreak egingo du. Ekainaren amaieran hasiko dira graba-keta lanak. Bizkaiko leku ezberdinetan egingo da filmaketa, batez ere Duran-gon.

Patxi Zubizarreta gustura dago bere ipuina zinean ikustearekin. Aurretik ere egin zuen beste saiakera bat, 'Jen-tzi' ipuinarekin. Montxo Armendariz zine zuzendariari bidali zion. Gustatu bai, baina istorioa Himalayan koka-tzen zenez, ezinezkoa izan zen zine-maratzeta.

'Usoa' ren kasua ezberdina izan da. "Lagun baten eskuetara iritsi eta asko

gustatu zitzaion. Hark Maria Zamako-lari erakutsi eta hura ere hunkitu egin zuen", dio Zubizarretak. Maria Zama-kolak eta Isabel Salinasek moldatu du-te gidoia, Zubizarretaren gainbegirada eta onarpenarekin. Liburuan agertzen ez diren elementuak sortu dituzte. Usoaren laguna esaterako. "Ipuina oso laburra da, pausatua, apenas duen ekintzarik eta hori irudietan isla-tzea ez da erraza izango. Horregatik, neska protagonistaren keinu baikoi-tzak, ñabardura bakoitzak, aparteko garrantzia izango duela iruditzen zait". Filmaketa lanak gertutik jarrai-tzeko asmoa dauka ordiziarrak.

Hurrengo nobela ari da prestatzen Patxi Zubizarreta. Bitartean, orainarte egindako lanaren emaitzak jasotzen ari da. Batetik, 'Usoa' ipuina zineman ikustea eta bestetik hiru ipuin gaztele-rara itzultzea. 'Emakume sugearen misterioa' eta 'Yentzi' ipuinak 'Dos casos unicos' liburuan bilduko dituzte; eta 'Gizon izandako mutila' ipuina, 'El chico que fue hombre' izenekoan.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
 Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
 E-mail: goierritarra@topagunea.com
 Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio
 Batzordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. Zenbaki honetako
 kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane
 Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aimar Maiz, Laida Oiarbide,
 Inko Mujika, Mari Flor Mendizabal, EHKA eta Joxepa Madariaga.
 Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
 Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
 GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
 Sailak, Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta GOIERRIKO
 UDALEK diruz lagundutako
 aldizkaria**

Ander Geresta

Maiatzaren 26an Frantziako Poliziak Bordelen atxilotutako Gabirian bizi den Ander Geresta Fresneseke kartzelan sartu dute. Madrilgo Entzutegi Nazionalak bere extradizioa eskatu du, Y talde bateko kidea izatea leporatzen baitiote. 1997ko abuztua eta 1998ko urtarrila bitartean Ordizia, Idiazabal eta Ormaiztegin egindako hainbat kale erasotan parte hartu izana leporatzen diote.

'Gure amaren etxea defenda dezagun' kanpaina

"Gure amaren etxea defendatzeko Lurraren aldeko mugimendu bat" sortu da. Sinadura bilketa egiten ari dira egun hauetan mugimendu horretakoak; 100.000 sinadura biltzea dute helburu. Sinadura hauekin guztiekin, "Moratorioa eskatzen dugu, hau da, energi eta garraio azpiegitura, nekazar gunearen okupazioa eta merkatal gune handiei buruzko proiektuen atzerapena eskatzen da, gizarte, kultura eta ingurugiroaren gainerako eraginei buruzko eztabaida sozial zabala eman arte. Gure ustez, sentsibilitate eta borondate desberdinak elkartzeko gune egokia izan daiteke luzapenaren eskaera hau", diote mugimendu berri honetakoek.

IX. Gerriko Ikerlan-sariketa Irene Hurtadorentzat

Sodupeko Irene Hurtado Mendiak irabazi du IX. Gerriko Ikerlan-sariketa, 'Goierriko hizkeraren kokapenerako, Goierriko hizkera Toloserriko hizkerarekiko harremanetan: zenbait ezaugarriren nolakotasunaz eta hedaduraz' lanarekin. Lan bakarra aurkeztu da Goierriko Euskal Eskolak, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeak antolatutako ikerlan sariketa honetara. Bi lagunek osatu dute epaimahaia: Luis Mari Mujikak (Filologoa, idazlea, EHUko irakaslea eta Euskaltzaindiako Literatura Batzordeko kidea), eta Xabier Kaltzakortak (Filologoa, Deustu Unibertsitateko irakaslea eta Euskaltzaindiko urgazlea eta Herri Literatura Batzordeko kidea). Zuzendari Zientifikoa Joxe Martin Apalategi izan da. 500.000 pezeta, ikur artistikoa eta lanaren argitalpena izango du saritzat Irene Hurtadok. Ekainaren 23an, arratseko 8etan egingo da sari-banaketa ekitaldia, Lazkaoko udaletxean. X. ekitaldiko Gerriko Ikerlan-sariketako deialdia eginda dago dagoeneko.

Izurri Berriak taldearen maxisingela

Ordiziako Izurri Berria musika taldearen maxisingela kalean da dagoeneko. Uda pasa eta gero kaleratuko duten 2. diskoaren aurrerapena da 'Traje de Lucsdun hiltzailea'. Bi kantu ditu: maxisingelari izena ematen dion 'Traje de Lucsdun hiltzailea' eta '3 segundu'. Ekainaren 12tik aurrera salgai egongo dira Ordiziako Baga Biga liburutendan eta Tolosako Kupela tabernan. Aurkezpeneko kontzertuak ere egingo dituzte. Oraindik zehazteko dauzkate, baina aldizkari honetan bertan iragarriko dugu.



Iban Urdangarin txapeldun

Ataungo bertsolariak Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketa irabazi zuen ekainaren 2an, Azpeitian. Lehenengo urtea zuen aurtan helduen mailan eta bera izan zen irabazlea. Ataungo kronikan duzue informazio gehiago.

Nafarroa Oinezeko kantua Trikiorena

Aurtengo Nafarroa Oinezeko kantua Goierriko Trikiorena taldeak egin du. Hurrengo aleetan izango dugu talde honen berri gehiago.

Hondarribiako ikerkuntza beka Aitziber Muruarentzat

Ormaiztegiarrak irabazi du IV. Hondarribiako ikerkuntza historikorako beka. 9 proiektu aurkeztu dira. Almeria, Zaragoza eta estatu mailako beste hainbat tokietatik ere aurkeztu dira. Aitziber Murua Uribe-Etxebarriak 'Hondarribiako arrantza eta arrantzaleen bizimodua XVI-XV-XVI. mendeetan' aurkeztutako proiektua izan da aukeratua.

Geografia eta Historian lizentziatu da Murua eta Dokto-radutza ikastaroak burututa ditu. Beste bi beka ere irabazitakoa da ormaiztegiarra. 'Lezoko baserrien ikerketa historikoa', Lezoko Udalak emandakoa (laster argitaratzear dena) eta Ataungo Udalak emandako 'Ataungo baserrien ikerketa historikoa' (amaitu berria).



Arriaran-Mandubia I. Rallysprinta

Beasaingo Ikastolak antolaturik, ekainaren 18an, I. rallysprinta jokatu da Arriaran eta Mandubia bitartean. Joan-etorria egin beharko dute gidariek. 5,5 km-ko luzera du ibilbideak. Arratsaldeko 3etan hasiko da lasterketa. Ekainaren 14a baino lehen eman behar da bertan parte hartzeko izena.

Segurako XXIV. Euskadiko Suelto dantza txapelketa ekainaren 17an eta 18an

Segurako XXIV. Euskadiko Suelto dantza txapelketako oinarriak kaleratu ditu bertako Udalak. Ekainaren 17an kanporaketa eta 18an izango da finala, 18:00etan hasita, San Joan jaien barruan. 30 bat bikotek hartuko dute parte.

15 urtetik gorakoentzako da lehiaketa. Dena den, bikoteko batek 15 urte izan eta bikote lagunak 13 urte beteta edo lehiaketaren egun berean betetzen baditu, aukera izango dute lehiaketan parte hartzeko.

Dantzariak fandangoa txistuz eta arin-arina dantza-

tu beharko dute trikitiaz. Epaimahaia Euskal Dantzarien Biltzarreko bost kidek osatuko dute.

Euskal Herriko dantza-jantzi tradizionalak eramatea beharrezkoa da. Jantzien ikusgarritasuna eta dotorezia areagotzeko helburuarekin 30.000 pezetako sari berezia

emango du EITBk eta 20.000 pezetako beste sari bat Donostiako KTE-k.

Finaleko atsedendian Aukeran dantza taldearen 'Zirga ezean' koreografia lan berria ikusteko aukera izango da.

San Joan jaia

Ekainak 17, larunbata:

09:30ean: Arrantza txapelketa.

10:30ean: Kriseilu txistulari taldearekin kalejira.

11:00etan: Haurrentzat marrazki jaia plazan.

12:30ean: Oria txaranga.

16:00etan: Txirrindulari proba.

18:00etan: Euskadiko sueltoko dantza txapelketa.

18:30ean: Pregoia.

18:30ean: Umeen danborrada.

23:30ean: Etzakit.

Ekainak 18, igandea:

09:30etik 12:00etara: Gipuzkoako bola eta toka txapelketa.

13:00etan: Automobil zaharren erakusketa plazan.

17:30ean: Telmah 'Lehoi baten bila', herriko plazan.

18:00etan: Euskadiko sueltoko dantza txapelketa.

19:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

20:00etatik 22:00etara eta 23:00etatik 01:00era: Egan.



Automobil zaharren erakusketa

Ekainaren 18an, eguerdiko leian, automobil zaharren erakusketa izango da Segurako plazan. 15 bat ibilgailu zahar ikusteko aukera izango da. Castillo Hotelaren aurrean elkartuko dira bitxi berezi hauek eta Seguraraino guztiak elkarrekin iritsiko dira.



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

JUANKAR

- ✱ Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- ✱ Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 639 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

Erreklamazio orriak

Erreklamazio orria administrazio bidetik aurkezteko metodorik sinple eta gomendagarriena da. Administrazioa gure arazoa konpontzen ahaleginduko da adostasuna lortuz edo arbitrai sistemaren bidez eta arau hausterik balego erreklamaturik zigortu egin lezaake.

EAEn ondasunak merkaturatu edo zerbitzuak eskaintzen dituzten guztiek, hots, denda, taberna, abokatu, notari, aseguratzaile, banketxe, aurrezki kutxa, gremioak, etab. Erreklamazio orriak eduki behar dituzte.

Arazoa sortu den lekuan bertan edo bezero zein erabiltzaileei informazioa emateko gunean eman behar digute.

Hiru kopia autokalkaga-

rri dituen inprimakia da, bata zuria, bestea arrosa eta hirugarrena berdea.

Zuria: hauxe da tramitatzen dena. Bidali Eusko Jaurlaritzak dituen kontsumoko lurralde bulego batera edo kontsumitzaileen informaziorako udal bulegora. Kontsumitzaileen Elkarte batera ere jo daiteke elkarteak bideratu dezan.

Arrosa: merkatari edo zerbitzua eskaintzen duenarentzat da.

Berdea: norberak gorde behar du; horixe baita erreklamazioaren justifikantea.

Erreklamaziogileen datu pertsonalak ipini behar dira, erreklamazioa jaso duenari buruzko datuak, erreklamazioaren arrazoiak

—gertaera— eta zer lortu nahi dugun —xedea— zein egunetan aurkezten dugun eta bestalde, erreklamazioa jaso duenaren iritzi edo adierazpenak. Bete ondoren, bi aldeek izenpetuko dute.

Frogatzat balio dezaketen justifikante eta dokumentu guztiak ere erantsi daitezke.

Kontsumoaren arloan eskumena duenak erreklamazioa jasotzen duenetik 15 eguneko epea dauka hartu izana adierazteko eta erreklamaturako establezimendura eramateko. Establezimenduak 10 eguneko epea izango du alegazioak eta nahi dituen frogak aurkezteko.

EHKA (Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa)

Lehiaketa

Galdera

Zenbagarren edizioa du Segurako dantza txapelketak?

Erantzuna ekainaren 19rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria 'Nire kuleroak' Anjel Lertxundi eta Antton Olariagaren liburua eta GOIERRITARRA-ren kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: 200 kiloko harriaa.

Irabazlea:
Jabier Eskisabel (Lazkao)



ARANDIA
Garajea
LADA AUTOEN KONPONKETA
N-1, z/g Iurre Auzoa
☎ 943 88 09 47 OLABERRIA

Udalak sustatutako etxebizitzaren salmenta



ALTZAGA
AZKEN ETXEBIZITZAK!

Guztira 180m² + lorategia
Informazioa:
Lanegunetan: 943 16 21 92
Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Goieki

Onforvision

SEXUA, ZER AXOLA

Lanbide Heziketa industrialean sexua ez da aintzat hartzen.

Adimen garapena, talde izpiritua, ekimena behar dira. Lanbide Heziketa hautatzen dugunok gero eta gehiago gara. Hoberena nahi dugulako.

Gure industriako lan-munduan txertatzeko diren espezialitateei buruzko informazioa jaso ezazu:
SOLDAKETA ETA GALDARAGINTZA, FABRIKAZIO MEKANIKOA, ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA, MANTENIMENDUA...

GOIEKI Industrialdea, 29 Pab. • E-20240 ORDIZIA • Tlf: 943 16 15 37/16 09 70 • Faxa: 943 88 38 50 • E-mail: goieki@udal.gipuzkoa.net
GOIERRI LANBIDE ESKOLA 24 Posta kutxatila • E-20240 ORDIZIA • Tlf: 943 88 00 62/66 • Faxa: 943 88 83 51 • E-mail: bulegoa@goierrieskola.org



Jon Agirre

Txirrindua

Aitor Garmendia daukat eredu ta faborito aukeran bere gixara hasi orduko itomena det gainberan negu partean entrenatzeko sardotegian jan-edan orain indarrak ez daukat eta kezka sortzen da neregana sagardotegi gutxi edo gehiegin kaltea dedan (bis).

Beraz Aitorri segitu nahia bilakatzen da kaltera pasiatzea irten gaitezen eguzkiaz gozatzer ta aldaparik agertuz gero gorputzaren mesedera Españiako legionarioek egiten duten antzera atzera inork ez beza egin buelta erdi ta aurrera (bis)

Doinua: Mutil koxkor bat

Iepa Karlos!

Gure arteko kontuak, barne-barneko kontuak, denentzako esatera noak. Hiri bakarrik esan nahiko nizkiakkeenak denen irakurgai jarriko dizkiat. Oraintxe modan omen zagok edonor edozeinen intimitatean sartzea, gainera. Egia esan jada ohitu nauk horrela egiten eta ez nauk gaizki sentitzen. Gainera... bazagok aldea "gure kontuak" Goierritarrako irakurleei eman irakurgai edota funtzionarioei ematearen artean... Azken hauek, itzuli, irakurri eta nahi dutena zentsuratzan ditek.

Hasieran amorrua ematen zidaan edozer kontu letretan jarri eta bidaltzeak, bai bainekien hik baino lehen beste askok irakurriko zituela. Amorrur hori ere gaintitu nian, ordea, eta 16 urte hauetan harreman polita izan diagu, ezta? Bixitan ez nauk askotan izan, bitan bakarrik, bi aldiz besterik ez haut ikusi 16 urtetan. "Hik dauzkan gibelak!" pentsatuko dik norbaitek. Baina ez ba!, idatziz maiz bixitatu baihaut.

Eguneroko nire/gure bizimodua kontatzen saiatu nauk; gure inguru fisikoa, herriak eta mendiak, nola aldatzen ari garen deskribatu diat; egoerak aldatzen direnean pentsatzen ditudanak, ingurukoek pentsatzen dituztenak bidali dizkiat; batzuentzat gauza txikiak, txikikeriak direnak esan dizkiat... Noski, kontu eta komeria guztiak ahal izan dudana txukunena bota dizkiat: ximple, ulergarri, goxo, bero.

Hire erantzunak ere mundialak izan dituk, bizi duan/bizi dugun errealitatea bezain gogor, zorrotz, une batzuetan alai, beste batzuetan triste, beti berde, beti esperantzatsu.

Oraindik begien aurrean haukat, oraindik belarrietan zarabiltzaat hik esandakoak; izan ere, hilabete besterik ez duk pasa elkarrekin ordubetea egon ginenetik. Fisikoki eta psikikoki eraman genian berotasuna ezin izan genian diximulatu: gure artean genuen kristala erabat lurrundu genian eta ze misterioak bihurtu genuen bixita, ezta?

Herritar asko bai, baina herri osoa ez daukak zain, ez. Norbaitek hori esaten badik, gezurra zio. Herri honetan bizi diren askok hi hor mantendu nahi haute. Gizarte "anitz" honetan hi Ataunen ikusi nahi ez hauen, preso mantendu nahi hauen asko zagok. Horrexegatik ez ditek beren legea ere betetzen, horregatik ez haute legez dagokian bezala aske uzten.

Nazkatzen ari nauk hiri idatzi eta beste batzuk gure kontuak irakurtzeaz, nazkatzen ari nauk besteek baimena emandakoan bixitatzeaz. Nahi dudanean, nahi dugunean egon nahi diat hirekin; hiri bakarrik esan nahi dizkiadanak beste inork ez entzuterik, ez irakurtzerik ez diat nahi.

To besarkada bat, bi musu eta hiru "txupoi", Karlos eta laster arte!



Joxepa Madariaga



MUJKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

URBITARTE

sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauean irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

Euskara txukunean

Hobe/hobea/hobeto

Zer alde dago hiruren artean? Noiz eta nola erabiltzen dira? Bai, hirurak dira zuzenak eta gure kalterako, hirurak nahasten dituzte gaur askok. Ikus ditzagun hirurak banan-banan:

Hobea

Hobea onaren familiakoa da, hau da, **nolakoa** galderari erantzuten dio. *Eguraldi hau ona da, baina atzokoa hobea zen/Zuk baino umore hobea du aitonak. Hobeagoa* esan izan da **hobea** esan ordez, eta **hobeagoa** ez da zuzena.

Hobeto

Hobeto, berriz, **ondoren** familiakoa da, **nola** galderari erantzuten dio. *Atzo ondo zegoen, baina gaur hobeto/Geroz eta hobeto moldatzen da euskaraz, ea...* Hemen ere **hobetoago** esan izan da **hobeto** esan ordez, baina **hobetoago** ez da zuzena.

Hobe

Eta azkenik, **hobe**. Adibide batzuk: *Hobe da ez joatea, Hobe dugu egitea, Hobe genuke garaiz etortzea.*

Maizpide Euskaltegia

Dutxa ala bainera?

Dutxa presaka bizi direnentzako.

Bainugelak gero eta garrantzi handiagoa al daukate?

Bai, geroz eta denbora gehiago eskaintzen diogu gure gorputzaren txukunketa eta edertasunari.

Zein koloretako bainugela?

Kolore bizietakoa: urdina, horia, berdea...

Asko aldatu al da bainugelaren dekorazioa?

Bai, orain toki alai eta goxoagoak prestatzen dira. Betiko materialak (egurra, axuleiu eta marmola), kolore bizi, paper eta abarrekin konbinatuz.

Etxebizitzetan zenbat bainugela?

Aukeran bi.

Zer ez zenuke inoiz egingo bainugela batean?

Behar ez diren edo aproposak ez diren tresnaz bete eta tokirik gabe utzi.

Etxeko txokorik gustokoena da batzurentzat bainugela.

Toki lasaigarrienetako bat behar luke.

Beste batzuentzat egunkaria irakurtzeko lekutik egokiena.

Agian bai. Baina ez dakit ziur ohitura bat edo esaera bat den.

Kirolrik egiten al duzu?


Nahiko gutxi.

Dirua ala osasuna?

Osasuna dudarik gabe.

Amets bat?


Gure seme-alabentzat Euskal Herri baketsu bat.



Joxe Antonio Barandiaran

Barandiaran
zeraamikak

IDIAZABALEN APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 1 eta 2 logelakoak.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- Garajeak igogailu zerbitzuarekin. 1,4 miloitik aurrera.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

686 414 901 - 943 450 721

Aizkorriko Lagunen Elkartea sort

Zegamako Udalak Aizkorriko Lagunen Elkartea sortzea erabaki du, Aizkorri mendikatea zaintzea eta aldi berean herritarren mendizaletasuna eta naturazaletasuna pizkortzeko helburuarekin, batez ere haur eta gazteengan. Elkartearen aurkezpen eguna uztailaren 2an izango da. Horretarako, Aizkorriko Lagunen eguna antolatu dute. Ekitaldien barruan, Pako Iriondo Gipuzkoako Mendi Federazioko lehendakaria omenduko dute. Uztailaren 2ko bazkarian parte hartu nahi duenak, ekainaren 25a baino lehen eman behar du izena, udaletxean.

Uztailaren 2an sortuko den Aizkorriko Lagunen Elkartearen helburuak hauexek dira: Aizkorri mendikateko ondusun naturalak errespetatu, zaindu, ezagutarazi eta gozatzeko ekimenak eragitea, herritarren mendizaletasuna eta naturazaletasuna pizkortuz, haur eta gazteengan batez ere.

Zegamako Udalaren ekimena izan da elkartea sortzea. Dena den, egun honetan, herriko elkarte guztien laguntza izango da antolaketan, bereziki Amezti Elkartearena.

Egun berezi hau antolatzearen helburuak bi dira. Batetik, Zegama mendizale eta naturazale askoren pasaleku izanik, Zegamako herriak festa egun bat eskaintzea. Bestetik, Zegama eta Aizkorri uztartzea, Aizkorriren erreferentzia Zegama izatea.

Bazkide-txartela

Bazkide-txartel berezia prestatu dute Elkarteko kide izan nahi dutenentzat. "Aizkorriko mendialdera hurbilduko diren mendizale eta naturazale guztiek izango dute Aizkorriko Lagunen Elkarteko

bazkide-txartela eskatu eta lortzeko aukera", diote antolatzaileek. Bazkide izateko ez da inolako adin mugarik izango.

Momentuan, Zegamako udaletxean, ostatuan, turismo-informaziorako bulegoan, Otzaurteko bentan, San Adrian eta San Pedroko aterpetxeetan jaso ahal izango dira txartelaren eskaria egiteko orriak.

Bazkide-txartela egiteko, besteak beste, datu hauek behar dira: izen-deiturak, Nortasun Agiriaren zenbakia, helbidea, telefono zenbakia, jaiotza data eta argazkia.

Bazkide-txartela, zertarako?

Lehenik eta behin, Elkartearen estatutoetan finkatzen diren helburu eta betebeharrakiko atxikimendua adierazteko izango da bazkide-txartela. Bigarrenik, Zegamako Udalak Aizkorraldeko naturguneari buruz, ingurugiro gaitan, kultur ekitaldietan, festa ospakizunetan eta gainerako gai eta esparrutan har ditzakeen erabaki eta ekimenen berri jasotzeko.

Hirugarren, Zegamako



Aizkorriko Aterpea zergatik egin zen?

Matias Gorrotxategi Otaegi, Etxeberri-Erdikoa baserrikoa eta emaztea, Maria Otaegi Mujika, Larrekokoa, Aizkorri artzain zeudelarik ekaitz izugarri batek harrapatu eta halako larrialdian, handik bizirik irtetzen baziren Aizkorriko gailurrean errefugio edo aterpe bat eraikiko zutela promesa egin omen zuten.

Matias, 1925ean hil zen eta bere testamentuan 2.000 pezeta utzi zituen Aizkorriko aterpe hau eraikia izan zedin eta era honetara beste inork halako larrialdi eta beldurrik pasa ez zezan.

Aizkorri mendia Zegamako eremuan egonik, Zegamako Udalak Aizkorriko aterpe hau mendizaleentzat egiteko 124,80 m² lur doan eman zuen.

Aterpea 1934. urtean eraiki zen, horretarako Matias Gorrotxategi eta bere emazte Maria Otaegik jarritako 2.000 pezeta hauek 1925etik 34ra bitartean interesen bidez 3.085 pezeta bilakatu zirelarik. Foru Aldundiak 2.500 pezeta jarri zituen eta Patronato Nacional de Turismok 2.000 pezeta. Mendizaleek ere beren aportazioa egin zuten. Obra 8.000 pezeta kostatu zen. Materiala, garai hartan asto eta mandoz eraman zen eta herriko argin eta peoiak ibili ziren lanean.

Aterpea 1934. urteko uztailaren 8an ireki eta bedeinkatu zen. Garaiko prentsak dioenez, 2.000 bat lagun izan ziren egun horretan Aizkorri. Urbiako eta Aizkorriko ermitetan meza entzun eta aterpea bedeinkatu zuten. Festa izan omen zen Aizkorri eta inguruetan, akordeoi, txistu eta irrintziekin.

Ondoren, 1945 eta 1982an ere Aizkorriko aterpeak zenbait berritu hartu ditu.

ostatuan, San Pedro auzoko aterpetxean, San Adriango aterpetxean eta Zegamako Udalak sor ditzakeen beste

haibat zerbitzutan baldintza, abantaila eta beherapen berezietz baliatu ahal izateko.

Arriola da uztailaren 2an Zegaman

Pako Iriondori omenaldia

Pako Iriondo elgoibartarrari omenaldia egingo diote uztailaren 2an Zegaman. Euskal Mendizaleen Federakundeko lehendakaria da Iriondo.



1926ko urriaren 13an jaio zen Elgoibarren. Txikitatik maite izan du mendia eta ibili da inguruko mendietan: Euskal Herrikoetan eta Pirinioetakoetan batez ere.


1940an 'Eup' mendi taldea sortu zuen Elgoibarren, beste zenbait lagunekin batera. 1943an taldeari Morkaiko izena eman zioten, eta halaxe sortu zen Elgoibarkoo betiko mendi taldea. Talde honetako lehendakaria izan zen 1953tik 1959ra.

Arriola & Cia. Konpainian hasi zen lanean. 13 urte egin zituen eta 1953an, Sigman jarraitu zuen eta hantxe hartu zuen jubilazioa 1986an.

Futbolearen ere gogotik aritu zen Pako Iriondo: atezain bezala jokatu zuen Elgoibarko bi taldeetan. Bere izaeraren adierazgarri, jokalariei baino entrenatzaile hobea izan zen.

1971tik 1976ra Euskal Mendizale Federakundeko lehendakari izan zen, 1967ko Andeetako espedizio famatu haren ondoren (gogoratu ikurrina atera zela) demokratikoki aukeratutako lehendakaria. Karpeta txiki bat, 25.000 pezeta, besterik ez zioten eman. 1971n 81 federatu besterik ez zeuden. Iriondok 1976an lehendakari izan zen, 7.000 inguru ziren federatuak. 1976tik 1978ra berriro hartu zuen Morkaiko Mendizale Taldearen lehendakari izan. 1986ko otsailean jubilatuta egin zen eta uztailaren 18an Federazioko lehendakari kargua hartu zuen, gaurdaino. Aurtengo azaroaren 6an, erretiratzeko asmoa azaldu du. Federazioak inoiz baino federatu gehiago ditu egun, 20.000 pasatxo eta osasuntsu dago, iaz 75. urteurrena bete ondoren.

Pako Iriondo, ezagutzen dutenek esanda, mendizale baino gehiago, bultzatzaile, kudeatzaile, antolatzaile eta lehendakari ona izan da. Garai zailenetan hartu izan ditu bai Morkaiko eta bai Federazioko karguak, eta bide onean jarri.



Aizkorriko Lagunen Eguna, uztailaren 2an

Uztailaren 2an egun osoko festa izango da Zegaman, Aizkorriko Lagunen Elkarteen sorrera dela eta. Jarraian duzue egitaraua:

07:00etan: Mendi-irteera: Zegamako plaza-tik Aizkorriko mendibilaldiaren irteera, Amezti Elkarteko gidaritzarekin.

11:00etan: Meza San Adriango ermitan, Aita Iñaki Aranzadik emana; eta Sancti Spiritun hamaitakoa.

12:00etan: Sancti Spiritutik Zegamarako jaitsiera, lagunartean.

14:00etan: Udaletxe aurrean, Aizkorriko Lagunen Elkartea sortzeko ekitaldia; Pako Iriondo, Euskal Mendizaleen Federakundeko Lehendakariari omenaldia; eta Aizkorriko errefugioa finantzatu zutenen oroimenezko ekitaldia.

15:00etan: Bazkaria herriko pilotalekuan. Ekainaren 25erako eman behar da izena. Bertsolariak eta trikitilariak.

17:30ean: Herriko kaleetan erromeria, erraldoi eta buruhandiek.



The Clover School of Languages



Domingo Unanue Pl., 5

☎ 943 16 20 16

ORDIZIA

Udan ere (uztaila abuztua eta iraila) ingelera eta frantseseko beharrei erantzuteko gaude.

Gainera: ✓ Abenduko 'Cambridge' azterketetarako prestakuntza (ingelera orokorra eta komertziala)
✓ E.O.I.ko (hizkuntza eskola ofiziala) errekupeketak
✓ Haurrentzat espreski prestatutako ekintzak

University of Cambridge Local Examinations
Syndicate antolatzaile zentru elkarteko kidea -
Donsotako ES409 zentrua.

'Sexua, zer axola'

kanpaina abian jarri du Goiekik

Tradizionalki gizonezkoek okupatu dituzten lanetan emakumezkoak integratzea du helburu Goiekik martxan jarri duen 'Sexua, zer axola' kanpainak. Goierriko enpresa industrialek behar duten adina pertsona kualifikaturik ez dagoen bitartean, emakumezko gazteen langabezia tasa handia da. Horrela, lanbide Heziketara bideratu nahi dituzte emakumezkoak, buzoa jantzi eta industriako lan munduan txertatzeko aukera izan dezaten, sexu bereizketarik gabe.

Zazpi urteko kontzientzia-zio kanpaina izango da eta 16 eta 18 urte bitarteko emakumezkoek dago zuzendua. INEMen 1999ko hirugarren hilabetekoaren datuen arabera, langabetuen %65a emakumezkoa da. Aldi berean,



Goierriko enpresek eskulan kualifikatuaren beharrean daude, lan eskaintza ezin bete dabilta. Bi ondorio hauek abiatuak hasi zen Goieki, Goierriko Garapen agentzia, gaia aztertzen. Lan-talde bat sortu zen horretarako. Beasaingo Asmube eta Ordiziako Kimetz emakume taldeek, Gizarte Laguntzaileko teknikariak, Ertaintetako Institutuetako lan orientatzaileak eta zuzendariak, Goierri Lanbide Eskolako Zuzendaria, EPA eta Inforvisioneko ordezkariak, osatzen dute taldea. Tradizionalki gizonezkoek okupatu dituzten

zenbait lanpostuetan emakumezkoak sar daitezzen kontzientziazatzen hasteko kanpaina egitea erabaki zen bertan, enpresa industrietan emakumea integratu dadin. Soldaketa eta galdaragintza, fabrikazio mekanikoa, elektrizitate-elektronika, mantenimendua... etorkizuneko ikasketak egitera bultzatu nahi dituzte. Gaur egun,

Lanbide Heziketaren barruan, emakumezkoek administrazio ikasketak egiten dituzte gehienbat. Egoera ekonomiko onak emakumezkoaren integrazioa erraztuko duela uste dute Goiekikoek.

16-18 urte bitarteko neskei zuzenduko zaie kanpaina. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatuta zein bide hartu nahi duten erabakitze adina izaten baita. Euskadi mailan eta Estatu mailan ez da horrelako kanpainarik egin. Komunikabideetako publizitateaz gain, esku-titz bana ere bidaliko zaie

adin horretako neskei. Bost urteko kanpaina izango da eta urtero egingo da urteaso honetan. Dirulaguntza lortu da kanpaina honetarako.

Ikerketa

Proiektu honen helburua, Goierriren egitura ekonomikoan emakumezkoaren integrazioa zenbatekoa den aztertzea ere bada. Juan Karlos Aldasoro da kanpainaren aholkularia eta ikerketak ere egingo ditu. Goierriko zenbait enpresa industrietako arduradunak elkarrizketatuko dira. "Emakumeak kontratupean dituzten enpresak eta oraindik ere emakumeak kontratupean ez dituztenak hartuko dira kontuan. Lehenengo kasuan, emakumeek organigraman zein presentzia eta funtzio dituen aztertuko dugu. Bigarrenetan, ea inoiz izan duten emakumezkoen kontratuarekin edo ez eta zergatik izan den hori eta aurrera begira zein jarrera duten", adierazi digu Aldasorok.

Goierri Bus

Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin

ZUBIZARRETA

ETXEGINTZA S.L.

Gudarien Etorbidea, 5 -1.A ORDIZIA
☎ 670 888 244 - 943 888 244 ☎

- ✕ Monumentu historikoen berritzea
- ✕ Karean iztukuak
- ✕ Pintura mineralak karean eta silikatoan
- ✕ Zarpeatu proiektatuak eta talotxatu finak
- ✕ Kapa bakarra
- ✕ Barruko eta kanpoko lanak

BEASAINGO

UDAL EUSKALTEGIA

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Matrikula epea: ekainaren 12tik 26ra

Bulego ordutegia: 09:00 - 13:00
15:00 - 19:00

Loinazko San Martin plaz, Kultur Etxea, 1.a
☎ 943 028 100 **BEASAIN**

Bigarren asteburuko egitaraua

Ekainak 9, ostirala:

18:00etan: Dantzaokea eta play back-a.

22:30ean: Rock kontzertua 'Betagarri' taldearekin, Gipuzkoako plazan, txoznetan.

22:30ean: 'Urrezko barea' izeneko sari-ematea, Beti-Bizi elkartearen.

22:30ean: Dantzaldia 'Montes Blancos' orkestrarekin, Loinazko San Martin plazan.

Ekainak 10, larunbata:

10:00etan: Txistularien Udal-bandaren goizeresia.

10:30ean: Aitz-Zorrotz Elkarrekin antolatutako herri-mailako plater-tiraketa, Suministros Loinazen parean.

11:00etan: Erretiratuentzako toka eta igel txapelketak, Zaldizurreta kaleko terrazan.

11:00etan: Elkarrekin arteko sukaldaritza-lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Goming jauziak, Erauskin plazan. Txartelak salgai aldeztu aurretik.

13:00etan: Elkarrekin arteko sukaldaritza-lehiaketako plateren aurkezpena.

15:30ean: Aitz Zorrotz Elkarrekin antolatutako herri-mailako plater-tiraketa, Suministros Loinazen parean.

15:30ean: Moto-kroseko entrenamenduak, Igartzako jauregiaren atzeko zelaian.

16:00etan: Gaztetxoentzako Xake-lehiaketa, Ezkiaga Auzo etxean.

17:00etan: Euskadiko Moto-kros txapelketa.

17:30ean: Umeentzako motorro-tailerra, Barrendain plazan.

18:00etan: Goming jauziak, Bideluze plazan.

18:30ean: Mozorrotuen bilkura eta ibilaldia 'Detraka' taldeak eta 'Oria' txarangak alaituta.

19:00etan: Umeentzako dantzaldi girotua 'Detraka' taldearen 'Trikimailu express' ikuskizunarekin, Joan Iturralde plazan.

19:00etan: 'Oria' txaranga.

19:30ean: Saloiko dantzen eta sevillar dantzen erakustaldia, Loinazko San Martin plazan.

23:00etan: Paco Formoso eta bere mariatxien ikuskizuna, San Martin plazan.

23:00etan: Goming jauziak, Bideluze plazan.

00:15ean: Dantzaldia 'Pasarela' orkestrarekin, Loinazko San Martin plazan.

Ekainak 11, igandea:

09:00etan: Iturengo Zantantzaren esnadeia.

11:30ean: Debako Musika-bandaren kalejira.

12:00etan: Erakusleihen lehiaketako sari-banaketa, Bareak elkartearen.

13:00etan: Debako Musika-bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

17:00etan: 'Kollins clown' taldeak 'Banbatxo' eta 'Txanogorritxo' ipuinak eskainiko ditu, Joan Iturralde plazan.

18:30ean: Eskualdeko erraldien bilera eta kalejira Musika Eskolako bandak lagunduta.

19:00etan: Herri-kirolak, Gernika pasealekuan.

19:00etan: V. Dantza Libreko lehiaketa, plazan.

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak
ChristianDior
San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

Bodegon Arrizar
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
ETXERAKO ZERBITZUA
Pizzak, Pasta, Sandwich-ak,
Plater Konbinatuak, Ogitarkeak...
Zaldizurreta, 7 BEASAIN ☎ 943 889 844

AIARZA KARROZERIA
EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA
Iurre lantegialdea, 10
☎ 943 88 05 65 OLABERRIA

AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia
Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN

Iñauti
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZNAI KOLEGIATUA
Jai zoriotsuak!
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

Jai zoriotsuak
opa dizkizuegu
beasaindar
giztiori!
Garbitasunak
OXEPI
☎ 943 88 96 67 ZALDIBIA

ad **AUTO ALDAGAIK** **ad**
ARATZ
Automobilien ordezkot piezak
eta osagarriak
Katea auzoa z/g ☎ 943 16 23 29 Faxes: 943 16 23 21 BEASAIN

Artisau eguna igandean

Kultura Batzordeak antolatua, artisau eguna ospatuko da igande honetan, ekainak 11, Idiazabalen. Goizean 10,30etatik 14,00etara eta arratsaldean 4,30etatik 7etara, 18 artisauek lana nola egiten duten ikusi ahal izango da. Eguraldiak laguntzen badu plazan arituko dira artisauek, bestela, Igarondo pilotalekuan.

Lehendabizikoz goiz eta arratsalde egiten den artisau egun honetan, artisau lan tradizionalak eta berriagoak bildu nahi dituzte antolatzaileek. Beraien esanetan, *"beste gauza guztietan bezala, artisaugintzan ere aurreakuntzak eman dira, eta horiek ere ekarri nahi ditugu Idiazabala"*. Horren haritik, Serigrafia tailerretan lana nola egiten den ikusteko modua izango da, edota graffitiak nola margotzen diren erakutsiko da.

Artisau gehienak kanpotarrak diren arren, hiru herritar ere arituko dira beraien lanak



erakusten. Maitere Mujikak bere pintura lanak erakutsiko ditu, Aloña Imaz Serigrafia egiten arituko da eta Sergio Mambrillasen lana izango da graffiti margotzea.

Ondoko artisau lanek osatuko dute erakusketa:
Zeramika (Karmen Bollar)
Oinetakoak (Zapatari)
Bitxigintza (Asun Esnal)
Tapizak (Idoia Ibañez)
Saskigintza (Matxin)
Serigrafia (Gaitun)
Makilak (Aitor Amor)
Talla (Xabier Arrieta)
Eskuz larrugintza
Zeramika (Joseba Tamame)
Damaskintza (Angel Ledo)

Uda kanpaina

Idiazabalgo Udalak eta Kiroldegia aurtengo udarako eskaintza zabala prestatu dute. Haurrei eta helduei zuzendutako ikastaroak daude antolatuta. Izena Kultur Etxean eman behar da ekainaren 23a baino lehen.

Udala, bestalde, uda kanpainarako arduradun bila dabil. Herritarrei egindako eskaintza da. Interesa duenak 5 eta 13 urte bitarteko haurrei zuzendutako programa aurkeztu behar du udaletxean ekainaren 15 baino lehen.

Konsultarako txanda

Astelehenetik aurrera, medikuarengana eta erizainarengana joateko telefonoz eskatu beharko da txanda. Horretarako, astean zehar, goizeko 8etatik arratsaldeko 5ak bitartean 943 18 70 73 telefonora deitu beharko du. Sistema berriaren bidez Osakidetzak zerbitzu hobea eskaini nahi die herritar guztiei.

San Adrian

Ekainaren 18an egingo da San Adriango erromeria. Urteroko moduan Udalak Otzaurtera joateko autobusak antolatu ditu. Autobus horietan joateko udaletxean eman behar da izena hilaren 16rako. Autobusak goizeko 7etan abiatuko dira Mujika paretik.

Bielorrusiarrak

Ekainaren 15ean iritsiko dira Idiazabala hilabete eta erdi gure artean pasatuko duten Bielorrusiako 5 neska-mutikoak. Arabako Lautadara datozen beste hurrekin batera iritsiko dira, autobusez bi eguneko bidaia egin ondoren. Haurrak, herriko bost familian egongo dira, beraiekin datorren arduradunak berriz Konbentuan hartuko du ostatu.

Igerilekua

Eguraldiak laguntzen badu, asteburu honetan zabalduko dute Igarondo igerilekua. Azken aste hauetan larrialdietarako gela berezia egokitze lanak egin dira eta honenbestez guztia prest dago. Asier Santana eta Maider Arrizabalaga izango dira aurtengo arduradunak.

Egurrezko jostailuak (Isabel Fernandez)
Pelotak (Juan Carlos Otero)
Lore idortuak (Maria Uriarte)
Espartingintza (Alicia Ben-goetxea)

Pintura (Maite Mujika)
Argizaingintza (Dayma)
Graffiti (Sergio Mambrillas)

Xabier Urteaga



- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2 BEASAIN

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57

Arantzazura peregrinazioa

Ekainak 11, igandea:

8:00etan: Arantzazurako lehen irteera autobusez, Apeaderoraino. **10:00etan:** Arantzazurako 2. irteera autobusez Apeaderoraino.

Oharra: Elizako portikuan gastuei aurre egiteko herritarren laguntza jasotzen da, bai larunbateko meza aurretik eta ondoren, bai autobusen irteeratan eta baita igandeko meza aurretik eta ondorenetan ere.

13:00-13:30ak aldera bazkaria Udalak eskainita.

17:00ak aldera Peregrinoek azken txanpa Arantzazuraino. **20:00etan** Errosarioa Santutegian. **20:00etan,** Autobusa Zegamara.

Ekainak 12, astelehena:

8:00etan Autobusa Zegamatik Arantzazura. **10:15ean,** Goiko Bentan herritarrek elkartu eta Santutegiraino prozesioa herriko agintari eta txistulariekin. **10:30etan:** Meza.

13:30ean: Bazkaria. **15:00ak aldera:** Zegamara oinez datozenen irteera. **16:30:** Zegamara autobusez itzuliko dinenetzat irteera. **17:00ak aldera:** Merienda Oazurtzen Udalak eskeinita. **18:00ak aldera:** Oinez datozenei ongi etorria San Bartolome Ermitaren ondoan, eta haurrentzat goxokiak.



19:00ak aldera: Ama Birjinaren ongi etorria Zupurrutin eta bere ondoren Prozesioa San Martin Parrokira sartuko da herriko txistularien laguntzarekin. San Martin parrokian Agurra (Salbea) bertaratu. **Ondoren,** Kasinoko Ipui Lehiaketaren sari banaketa plazan.

19:30ean: Tortila eta ardo banaketa udal arkupeetan. **21:00etatik aurrera** afaria Udaletxeko arkupeetan trikitariekin.

Izen-emateak

Autobusetarako izena eman eta txartela jaso behar da udaletxean. Epea: ekainak 9 aurretik, igande goizekoetarako izan ezik. Herrian erroldatuek lehentasuna izango dute.

Pazkoa bigarreneko afarirako udaletxeko arkupeetan tokia hartzeko epea: ekainak 9 aurretik.

LABURREAN

Opor etxeen errolda

Goierri zenbait hotel, ostatu eta Nekazalturismo ere martxan jarri dira azken urteotan baina, jakin dugunez, gero eta jende gehiago dator logela bat edo asteburuetarako etxebizitza bat alokatuko lukeena.

Hori dela eta, Udalak, alokatzeko prest leudeken etxebizitzak edota logelen errolda egiteko asmoa du. Bisitariak normalean, asteburuetan eskatzen dute lelekua eta Udalaren ustez, herritarrentzat diru-sarrera berri bat litzateke. Beraz, asteburuetan etxebizitza edo logelaren bat alokatzeko interesik baduzu, jo ezazu udaletxera, bertan informazio gehiago emateaz gain, errolda bat egingo baitugu.

Saneamentu obrak

Bere egunean, arrazoi batengatik edo bestearengatik Foru Aldundiak bukatu gabe utzitako saneamentuko lanei, Udaletik egindako zenbait kudeaketen ondorioz, berriro ere ekingo zaie berehala. Txarape eta Alderdi Ederreko saneamentu obrak behin-behingo egingo dira hasera batean, (Txarapeko potzu beltza garbitu da dagoeneko) era honetara uda honetan arazorik izan ez dadin auzo horietan, baina esan, behin-betiko obrak, urte bukaera aldera egingo direla, hauek, uholden defentsarako, Olaran errekararen bideratze proiektuaren barnean gauzatuko direla.

Txirrindu frogak

Datorren ekainaren 10ean, 16:00etan, XVI. Elkartu nahi frogak, junior kategorian, egingo da. Irteera 16:00etan izango da eta helmuga 18:15ean Otzaurten izango da.

Tobera musika eskolaren kontzertuak


Ekainaren 17an Tobera Musika eskolako ikasleek kontzertua eta dantza saioa eskainiko dute.

Dantza saioa **eguerdiko 12etan** eskainiko dute herriko plazan.

Arratsaldeko 5etan San Martin parrokian kontzertua eskeinitako dute.

Ekainaren 18an, hainbat ekintza desberdin izango ditugu. **11:00tan,** Santu Espiritun Meza. **12:00tan;** Jaunartzeak San Martin Parrokian. **12:00tan:** Idiazabalgoei harrera Gurutze Santuko Ermitan.

Eduarne Albizu



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Desbrozadora, retroa eta pala

Segurako Udalaren iniziatibaz, partzoneriko 7 herriren artean erosiko dira, bide bazterrak garbitu, lurra mugitu eta abarretarako balio duten tramankuluak. Goimenek %60an subentzionatuko du erosketa, gainerakoa 7 herriren artean banatuko delarik. Goimenek pertsona bat kontratatuko du ibilgailua erabiltzeko.

Frontoi zaharren pelota

Pelota taldekoek, pelotarako zaletasuna sustatu nahian mutikoentzako herri mailako pelota txapelketa antolatu dute. Duela 2 aste hasi ziren kanporaketak Baratze pelotalekuan jokatu ziren, baina finalaurrekoa eta finala frontoi zaharrean jokatuko dira. Finalak, Korpus egunean, ekainaren 22an, ardo partiketa-aren aurretik jokatuko dira.

Benjaminetan 6 bikote ari dira, alebinetan beste 6 eta infantiletan 2. Partehartzaile guztientzat izango dira trofe-



Baserritarrentzat rotoenpaketadora eta enzintadora

Baserritarren sektorea laguntzeko eta bide batez zelai eta mendiak garbi edukitzeko, belar bolak egiteko rotoenpaketadora eta enzintadora erosi ditu udalak. Goimenek udalak aurkeztutako plana onartu eta %60an subentzionatu du erosketa. Gainerakoa udalak ordaindu du. Lehen, belar bola bakoitza 2.200 inguru kostatzen bazitzaion baserritarri, orain 1.200 ordaindu beharko du.

Pertzeko zoparen jaitsiera

Oilaluma zopajaleak izanik Segurari dagokion festetako jaitsiera zopaz betetako pertzarena da. Elorri Kultur Elkartearen iniziatibaz eta antolaketaz, ekainaren 17an iluntzeko 8etan burutuko da ekitaldia. Jaitsiera kanpandorretik txanbolinpeko balkoira egingo da, Kriseilu txistulari taldearen doinuez. Ondoren festetako pregoia irakurriz hasiera ofiziala emango zaie jaiei. Zopajaleak izanik, ordea, jaitsi berria izango den pertzeko zopa probatzeko aukera izango da plazan bertan. Ardoa ere partituko da barrikatik. Festei buruzko informazio gehiago 5. orrialdean. Azken asteburukoa hurrengo alean.



Kanpandorretik txanbolinpeko balkoira kablea bota eta bertatik jaitsiko da zopaz betetako pertza.

oak. Biharko (ekainak 10) kanporaketak goizeko 11etan izango dira Baratze pelotalekuan.

Omenaldia Iñaxio eta Xabier Imazi

Korpus egunean jokatuko diren finalen ondoren, erremonteko txapelketa nagusian Ezkurrarekin batera txapeldun geratu zen Iñaxio Imazi eta bigarren mailako txapeldunorde geratu berri den Xa-

bier Imazi omenalditxoa egingo zaie.

Bola

Segurako lehen saioa irabazteaz gain (47 birla), maiatzaren 28ko Altzako 2. saioa ere Xepeiño Agirrek irabazi zuen (48 birla), 'Lehendakari Kopa'ren irabazle geratuz.

Korpus eguna

Ardo partiketa eta herri afaria. Korpus egun berean, ostegunean, ekainaren 22an, pelota partiduen eta omenaldiaren ondoren. Afalondoren trikitixa izango da.

Meza eta prozesioa. Ekainaren 25ean, San Joan bigarrean. **11:00etan** meza parrokian eta ondoren Korpus prozesioa herriko kaleetatik zehar.

Labur-labur

● **Ardixarrane etxea** barrua aldetik minimoki egokitu ondoren, egoitzari zein erabilera mota eman jakiteko bilera bat egin da bertan eta beste zenbait ere egingo dira. Informazio gehiago udaletxean.

● **Oxiña igerilekuaren** zorua eta paretak berritu egingo

dira, behin betiko konponbidea har dezaten. 3 milioi eta erdiko gastua du. San Joanak ondorenerako irekitzeko asmoa da.

● **Txuloneko gunea** eraikitzen hasi arte kotxeak aparkatu ahal izateko lekua egokituko da. San Joanetarako martxan izatea espero da.

● **Lardizabal kaleko Arrue etxearen** fatxada txukundu eta zaharberrituko du Kutxak udarako antolatzen dituzten auzolandegi batek uztaillean. Udalak, andamiaio jartzeak sortuko duen gastuari egin beharko dio aurre.

● **Mendi irteera.** Kirol eskolarreko azken aktibitatea. Finalistaren eguna, ekainaren 11n. Irteera 8:30ean plazaatik.

● **Musika eskolaren ikasurte amaierako kontzertua.** Ekainaren 15ean 17:00etan Aterpetxean.

● **Trinidad kofradia.** Axun Gereñu, Joakina Alustiza eta Arantxa Aburuza ekainaren 18ko mezen aurretik eta ondoren egongo dira Ospitalpean kofradekideei urteroko kobraketa egiteko.

Joseba Telleria



Enplegu baldintzen akordioa

Lazkaoko Udaren menpeko langileen, hau da, administrazio alorreko langileen lanaldia 35 ordura jaitsiko dela erabaki zen pasa den hilabeteko plenoan. Neurri hori eta beste hainbat biltzen dituen akordioa sinatzearen lehentasunezko helburua langabezia maila jaitea da.

Lanaldia murriztea eta berriro antolatzea izan da beti eragile sozialen aldarrikapen bizia. Murrizketa hori, laneo baldintzen hobekuntza izateaz gain, administrazioetan lanpostu finkoak sortzera bideratutako aukera ezin ho-

bea da. Beraz, enplegu kopurua eta kalitatea hobetzeko neurriak jasotzen dituen akordioa sinatu zen plenoan. Izan ere, egonkortasuna lortzea da helburua, bide batez, zerbitzu publikoa hobetuz.

Hori dela eta, lanaldia asteo 35 ordukoa izango da. 2000.urtean asteo 35 orduko lanaldia ezartzen ez den erakundeetan, Toki eta Foru Entitateetako langileen lanaldiak gehienez ere 1.632 ordu eraginkorreko iraupena izango du. Beraz, lanaldiaren murrizketa hori ez da bat-batekoa izango.

Lazkaoko helduentzako eskola

Orain dela sei urte hasi ziren San Prudentzio eskolan helduentzako klaseak. Gaur egun, zortzi ikasle dira erratza liburuengatik aldatu dutenak. Berriro ere, ikasketen munduan murgiltzeak ilusioa berreskuratzeko aukera emateaz gain, aurrera pausu izugarria suposatzen du beraientzat. Gazte denboran lortu ez zuten titulu bat orain lortzeko harro egoteko arrazoi bat ematen baitiete.

Helduentzako Eskolara arratsaldero joanez diharduten zortzi laskotar hauek ekainaren 23an hartuko dituzte oporrak. Baina oporren aurretik eskursio bat egingo dute Goierriko gainontzeko eskoletako ikasle helduekin. Eskursioa ekainaren 15ean izango da. Arratsaldeko hiruetan aterako dira hemendik Azpeitiako Loiolako San Ignazio, Zestoako Bainuetxea eta Zumaia ikustera joateko.

Beraz, ikasteaz gainera lagun berriak egiteko aukera paregabea eskaintzen du eskolak. Dena den, badirudi euskaldunek ez dutela esperientzia honetan murgiltzeko beharrik edo indarrik sentitzen. Izan ere, Lazkaon eskola honek daramatzan sei urteetan ikasle heldu guztiak erdaldunak izan dira.



Argazkian ageri direnak Gipuzkoako txapeldunak dira eta Euskadiko Txapelketara iritsi ziren. Hurrengo urterako utzi beharko da, ordea, Euskadiko mailako garaipena.

Zutik: Jaun Perez, Asier Urkizu, Manex Begiristain, Eneko Naldaiz eta Txamari Naldaiz entrenatzailea.

Makurtuta: Hodei Rodriguez (kanpoan), Jon Gonzalez, Gaizka Barandiaran, Asier Parra eta Edorta Fernandez.

Euskadiko txapelketa

Orain hamabost egun hasi eta lehengo astebukaeran amaitu zen Euskadiko Txapelketan Lazkaok izan zuen bere esparrua. Batez ere, futbola, atletismoa eta pilota nabarmendu genitzake.

Garaipenik esanguratsuen atletismoaren eskutik etorri da lazkaotarrentzat. Kirol honetako arlo ezberdinetara hiru gazte aurkeztu ziren: Laida Senar 4x80 m.ko erreleboetan; Itsaso Galarraga pisu jaurtiketan eta Garazi Zabaleta txabalina. Hiru neska hauek lazkaotarrak atletismoan ez garela makalak erakutsi zuten. Izan ere, Laidak eta Garazik lehenengo postua lortu zuten, Itsasok, berriz, hirugarrena.

Areto-futbolearen ere aritu ziren Lazkaoko infantilak Euskadiko Txapelketan. Eta pasa den larunbatean Nafarroaren kontra 6-2 galdu bazuten ere, meritu latza izan dute Gipuzkoako Txapeldunak izaten.

Pilotari dagokionez ere, Mikel Insausti eta Mikel Lopez de Arregi izan ziren Euskadiko Txapelketarako sailkatuak. Biktore honek, Elgoibarren partidu ederra jokatu bazuen ere tanto bat faltatu zitzaion irabazle suertatzeko. Dena den, hortxe jarraitzen du lazkaotar guztien esperantzak hurrengo urterako garaipenarako prest.

Elordi Garcia



*Aholkularitza juridikoa,
fiskala, laborala,
kontablea...*

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATETXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

*Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak*



*Gipuzkoako Eskolarteko
Bertsolari Txapelketan*

Iban Urdangarin txapeldun

Ez ziren haserre joan den ostiralean Azpeitira joan ziren ataundarrak. Aldarretako Iban Urdangarin baitugu Gipuzkoako eskolarteko Txapeldun berria. Lorpen honek meritu bikoitza duela esan genezake. Izan ere, aurten, 15 urterekin, larrien mailara, 14tik 18rartekoenera pasatu baita eta berak esaten zuenez hori salto handia da. Eskuratu berriaz gain, bi txapel irabaziak ditu txikien mailan Ibanek, Ataungo taldearekin. Baina ez zen Iban Azpeitiko Izarraitz pelotalekuko oholtza gainean herritar bakarra. 14 urterartekoen taldean,

Goierriko ordezkari izan baitziren Haitz Aierbe, Oier Zurutuza eta Aitzol Munduate. Azken hauen mailan Hernani-Antiguako taldeak eraman zuen txapela, Goierriko taldea bigarren geldituz. Eta orain guztiok Mungiara begira gaude. Han jokatu baita Euskal Herriko finala ekainaren 29an. Euskal Herriko gainontzeko probintzietako ordezkariekin batean, han ikusi ahal izango ditugu Iban Urdangarin txapelduna eta Aitzol Munduate, txikien mailako txapeldun ordeko bertso kantari. Urteaskotarako eta zorte on bioi.

Abelino Barriola saria berriro ere eskolara

Urtero Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak antolatzen duen Abelino Barriola saria irabazi berri dute 4. mailakoek. Beraz, urriaren 3tik 7ra Iparraldera joango dira irabazleak. Lehiaketa honen bidez ahozkerak garbia eta txukuna landu nahi da. Parte hartzeko Hezkuntza sailak zehaztutako antzerki zati bat antzeztu behar da. Horrez gain, eskola bakoitzak aukeratutako bi ipuin eta bi olerkiren grabazioak ere aurkeztu behar izaten dira. Aipatu behar da hau ez dela JM Barandiaranekoek saria eskuratzen duten lehen aldia. Lehiaketaren helburua ikusirik opatu beharrekoa da aurrerantzean ere horrela jarraitzea, baina ez lehiaketetan bakarrik, kalean ere bai.

Labur-labur

Joan den igandean izan genuen Juan Barriolaren heriotzaren berri. Doluminak sendiari.

Otso festa 2000

Ataugo Udalak antolatzen duen ikasturte amaierako kultur eta kirol asteari, Otso Festari dagokion egitaraua aurtengoan ere bete bete dator. Ekainaren 10ean hasi eta uztailaren hasierararte izango da zer ikusirik. Hona hemen bada, egitaraua:

Ekainak 10, larunbata:

Iluntzeko 7etan: Jaialdia Herri Antzokian. Herriko musika ikasleek estreinako emanaldia eskeiniko dute, denetarik izango delarik bertan: trikitilari, piano jole, abeslari, gitarra jole, txalapartari... Eta jada ezaguna dugun Otsoak dantza taldea ere bertan izango da.

Ekainak 15, osteguna:

Iluntzeko 9etan: Pelikula Herri Antzokian. Izenburua oraindik ere zehazteke dago.

Ekainak 17, larunbata:

Iluntzeko 8,30etan: Abesbatzak Herri Antzokian. Andoaingo abesbatza izango du lagun herriko EATE abesbatzak.

Ekainak 21, asteazkena:

Arratsaldeko 3,30etan: Hitzaldia San Gregorioko Elkargu-nean. Kirol medikuntzan adituak diren Jokin Garres eta Manu Gonzalezek "Gorputzaren zainketa eta erreabilitazioa"z jardungo dute.

Arratsaldeko 5etan: Soinketa bateratua.

Ekainak 29, osteguna:

Arratsaldeko 6etan: Auzoetako Badminton finalak.

Ekainak 30, ostirala:

Arratsaldeko 3etan: Zelaiko Badminton finalak.

Uztailak 1, larunbata:

14:00etan: Pala txapelketako finala.

15:00etan: Frontenis txapelketako gizonezkoen finala.

16:00etan: Esku pilota txapelketako finala.

17:00etan: VII. Ataungo Areto-futbol txapelketa (3. eta 4. postuak)

18:00etan: VII. Ataungo Areto-futbol txapelketako finala.

20:30ean: Otso Festa 2000 Afaria Bitor jatetxean. (Ikasturte-ari amaiera emateko sari ematea barne).

Bestalde, **erakusketa** bat izango da ikusgai ekainaren 10etik 17re bitartean. Bertan ikastaroetan eginiko harilanak, tailak, margoak eta argazkiak egongo dira erakusgai. Lan hauek Herri Antzokian antolatu diren ekimenetan zehar ikusi ahal izango dira.

Agurtzane Bikuña

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

Gorka Izagirre txirrindularia irabazle

Lezon jokatu berria den Gipuzkoako eskolarteko txirrindu txapelketan Gorka Izagirre herritarrek infantil mailan, lehen aldiz aurkezturikoen artean, lehen postua lortu zuen. Infantil mailako taldea 12-13 urte bitarteko txirrindulari gaztetxoek sortzen dute. Lezoko txapelketan guztira 40 txirrindulari inguruk parte hartu zuten. Gorka Izagirrek oso karrera ona burutu ondoren, sailkapen orokorrean 9. postua lortu zuen.

Ordiziako Txirrindulari Elkartea

Egun Gorka Izagirre, bere anai Jon Izagirre, Egoitz Berasategi eta Urko Lasa herritarrekin batera Ordiziako Txirrindulari Elkarteko taldekide da. Aipatu txirrindulari elkartearen aritzen dira beste hainbat herrietakoekin batera txirrindularitzan prestatzen.

Gorkak bere prestaketa Ordizian burutzen badu ere txirrindularitza gina txikitatit datorkiola esan de-



zakegu. Kontuan izanik bere aita Joxe Ramon Izagirre txirrindulari ezaguna dela, Gorkak txirrindularitzarekiko zaletasuna berezkoa duela pentsa dezakegu. Beraz aitaren erakutsiekin eta Gorkak duen zaletasunarekin, orain arte bezala harturiko bideari jarraituz gero egun batean txirrindularitzan maila onera irits daiteke.

Ormaiztegiko txirrindu txapelketa

Lezoko txirrindu txapelketaren ondoren Ormaiztegin ospatu zen alebin, benjamin eta infantil mailako txapelketa. Alebin mailan Ander Iradi izan zen irabazle, bigarren postua Ordizia taldeko Igor Otegik lortu zuen. Neskei dagokien lehen saria Udane Sarasolak eraman zuen. Lehen herritar sailkatuaren saria Jon Izagirreak lortu zuen.



Txindata Musika Eskolako trikitilariak Bianan

Txindata Musika Eskolako trikitilari gaztetxoak apirilaren 15ean Bianako kaleak alaituz aritu ziren Iruñako beste hainbat trikitilariarekin batera. Xabier Arakama trikitixa irakaslearen ikasleak diren gaztetxo hauek, arrakasta handia lortu zuten Bianako artisau erakusketa zela eta buruturiko kalejireetan. Ikasle gaztetxo hauek izango dira San Joan bezperan beraien doinu herriko kaleak alaituko dituztenak. Uztailean 1ean berriz ere Nafarroara hurbilduko dira, hain zuzen ere, Iruñako kaleak alaitzeko asmoz.

San Joan ospakizunak

Aurtengoan ere iristear dugu San Joan eguna eta berarekin herrian urtero bezala hainbat ekitaldiko ospatuko da.

San Joan aurreko bi asteetan udaleko aretoan bi erakusketa ikusgai izango dira. Lehenengoa, **'Mundua zure ikuspegitik'** erakusketa izango da, ekainaren 12tik 16ra bitartean, 17:00etatik 18:30era. Bigarrena, berriz, **Gerhard Bahr** pertsonaia nor izan zen ezagutzen lagunduko digun erakusketa izango da, ekainaren 19tik 24ra bitartean. Orduetgia: astegunetan 17:00etatik 18:30era eta larunbatetan 12:30etik 14:30era. Gerhard Bahr Legazpiko Udana auzoan jaio bazen ere, Ormaiztegiarekin izan zuen harreman estua kontuan izanik, bera jaio zeneko mendeurrenako ospakizunetan partaide izango da Ormaiztegiko herria ere. Ospatuko diren ekitaldien bitartez, Gerhard Bahr nor izan zen gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu. Hain zuzen ere, ekainaren 22an, udaletxeko aretoan gaian adituak direnek eskainiko duten hitzaldiaren bitartez pertsonai hau geureganatzen lagunduko digute.

Ekainaren 16an Txindata Musika Eskolako kontzertua izango da. Ekainaren 23an, urtero bezala, San Joan bezperako ekitaldiak izango dira.

Aitziber Murua

Ekintzaz beteriko ekaina

Datorren ekainaren 16an, kultura batzordearen eskutik, hainbat adierazpide uztartzen dituen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu herrian. "Hitza, irudia, sentimendua... Irudimena" poesia, ipuina, margoketa, musika... bezalako espresio bideak batzen dituen saiakera da. Felipe Juaristi, Itziar Rozas eta Juan Cruz Igerabide, besteak beste, dira esperimendu honen partaideak eta egunerokotasunetik irtetzeko formula berezia eskaintzen dute. Ikuskizun hau herriko antzokian izango da gaueko 10etan eta sarrera 300 pezetakoa izango da.

Ikastaroetako erakusketak

Ekainaren 23tik 30era, herriko Pintura eta Taila ikastaroetan eginiko lanen erakusketak zabalik egongo da Kultur-Etxean, arratsaldeko 6etatik 8etara. Erakusketa honetan, Patxi Epelde, Ines Elorza eta Mikel Arozenaren ardurapean burutu diren pintura, hari eta margo lanak eta Taila ikastaroetan eginiko lanak egongo dira ikusgai.

Haurren kontzertua

Datorren ekainaren 20an, astearte, Musika eskolako 1999/00 ikasturteko Zaldibiako haurren azken kontzertua izango da antzokian, arratsaldeko 7etan.

Herri Eskolako festa

Ikasturtearen amaiera dela eta, Lardizabal Herri eskolako ikasle eta irakasleek kurtso amaierako festa antolatu dute ekainaren 23rako. Festa goiz eta arratsaldean izango da.

Kirola

● Zaldibiako taldea, Herriarteako **pilota** txapelketatik at geratu da, Lasarteako taldearen aurka 4-2 galdu ondoren. Talde honetako hirugarrena Ataun zen, baina goie-



Ekainaren 17an, larunbata, goizeko 11,30etan lagun arteko areto futboleko partidua jokatuko da Resti pilotalekuan. Partidu honetan, Zaldibiako Lardizabal Herri eskolako neskak, Gipuzkoako txapeldun berriak, arituko dira Bilboko Karmelo ikastolako txapeldunen aurka.

rriko bi taldeak kaleratuak izan dira Lasartearrak gehiago direla erakutsi baitute.

● Larunbat honetan, **Ikas-Pilotak** antolatutako partiduen barnean, Zaldibiako pilotari gazteak arituko dira joan Arrasateko pilotalekuan.

Zaharren egoitza

Denboralditxo bat berritze lanetan igaro ondoren, maiatzaren 28an estrinatu zen Beti Gazte elkarteak. Egoitza itxuraldaturik aurkitu badugu ere, herriko zaharrenak indarberriturik datoz eta bi ekintza antolatu berri dituzte ekainerako. Batetik, ekainaren 22an Testamentuari buruzko hitzaldi-solasaldia izango da Zaharren egoitzan arratsaldeko 6etan, Luis Barinagabeitiaren eskutik. Bestalde, lerro hauen bidez, kosta aldera egin ohi den irteeraren berri eman nahi dute antolatzaileek. Irteera ekainaren 28an izango da, baina txartelak larunbat honetan jarriko dira salgai.

San Joan gava

San Joanak ere gain-gainean ditugu, eta haxe da aurtengorako prestatu den egitaraua:

Arratsaldeko 7etan: herriko txarangarekin kalejira.

Arratsaldeko 7,30etan: ardo barrika zabalduko da.

Iluntzeko 9etan: Herri afa-ria plazan.

Gaueko 10,30etan: "Izan direlako...", herritarrek antolatutako ikuskizuna.

Oharra: ikuskizun honetan parte hartzen dutenek piztuko dute sua, beraz, beste inork ezingo du sua piztu.

Ondoren, trikitixa.

*Inaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi*



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Igartzari buruzko diaporama martxan

11n jarriko da martxan Igartzari buruzko diaporama. Era honetan, gure herriaren bilakaera ikusteko aukera izango dugu. Bederatzi proiektore kokatu dituzte eta irudia, musika eta ahotsa konbinatuz erakutsiko zaigu Beasaingo historia. Ekimen honen helburua, zerbitzu hau bisitari guztiei era iraunkor batean eskaintzea denez, Belengo Andre Mariaren ermitan, turistentzako informazio bulegoa ere zabalduko da.

Igartzako Monumentu Multzoa bisitatu eta ezagutzeko aukera izango da beraz: Jauregia, Erdi Aroko Zubia, Belengo Andre Mariaren Ermita, Errota, Burdi-

nolaren hondarrak, Dolarea baserria, Errementari eta Gurutzeta bisitatu ahal izango dira gidari baten laguntzarekin. Aukera paregabea beraz, Beasaingo herriaren Erdi Aroko bizimodua ezagutzeko eta Igartzako Jaurreriak Beasaingo historiaren bilakaeran eduki zuen garrantziaz jabetzeko.

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:
17:00etatik-19:00etara (asteartetan itxita egongo da)

Larunbatetan:

11:00etatik 14:30era
16:00etatik 19:30era

Igandetan:

12:00etatik 14:30era
16:00etatik 19:30era

Kontzertu emanaldiak

Euskal kantu kantuan programaren barruan, Labrit abeslari gazteak bere lehenengo diskoaren aurkezpen-kontzertua eskainiko du ekainaren 15ean Usurbe Antzokian, gaueko 21:00etan. Sarrerak 1000 pezeta balio du. Amaia Kasasola abeslariaren alaba da Labrit eta Bide Ertzean taldeko kidea izandakoa.

Musika Eskolako Akordeoi Orkestrak kontzertua eskainiko du ekainaren 17an Udaletxeko Batzar Aretoan eguerdiko 12:30etan.

Musika Eskolako Bandak kontzertua eskainiko du Loinatzko San Martin Plazan ekainaren 18an, goizeko 10:00etan.

Musika Eskolak ikasturte-amaierako kontzertua emango du Usurbe Antzokian, hilaren 22an 19:30ean.

LABURREAN

Urrezko barea



Beasainen alde lan egin duen herritarrari Urrezko Barea aipamena eman ohi zaio Loinatz Jaietan. Aurtent, Josetxo Zufiaurre etnografoak eraman du sari hau. Gogoratu, orain gutxi argitaratu berri duela, 'Beasaingo argazki zaarren bilduma' lana. Gaur, ekainaren 9an, 22:30ean egingo da sari emate ekitaldia. Beti Bizi Elkartea

dela merezimendu hau nork jasoko duen erabakitzen duena. Orain arte hauek dira Urrezko Barea jaso dutenak: Segundo Dorronsoro, Karlos Argiñano, Jose Martinez, CAFeko zuzendaritza eta langileak, Cesareo Ugarte medikua, Isabel Olano andereñoa eta herriko Odol emaleen ordezkariak.

Zumazuritze garaile XXIV. futbol-txapelketan

Urtean zehar lagunarteko futbol partiduak jokatzen dira asteburuz asteburu. Finala pasa den astelehenean jokatu zen, koadrilen egunean. Aurrez aurre izan ziren Zumazuritze eta Auskalo taldekoak, eta Zumazuritze ditugu txapeldun

Euskal sozialismoaren inguruko ihardunaldiak

Ekainaren 20an, Jose Gabriel Zurbanoren 'Cien años de socialismo en Beasain' hitzaladia egingo da Ezkertokian 19:30ean. Ondoren luncha izango da. Leku berean, honen inguruko erakusketa ikusgai izango da hilaren 25a bitarte.

Ekainaren 22an, euskal sozialismoaren jadaneekotasuna eta egungo proposamenei buruzko ihardunaldia egingo da 19:00etan Udaleko Batzar Aretoan.

Ekainaren 24an, mahai-ingurua egingo da ehun urte beteak dituen sozialismoaren inguruan. Udaleko Batzar Aretoan goizeko 11:30etan.

Ekainaren 25an ekitaldi politikoa egingo da eguerdiko 13:00etan Loinatzko San Martin Plazan.

Nekane Altuna

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Mendi irteera ekainaren 18an

Maiatzean egin zen mendi irteerak izan zuen arrakasta ikusita eta jendearen iritziari jarraituz, ekainaren 18rako beste irteera bat antolatuta da, oraingoan Partzoneriko Txurro eta bere inguruetara.

Ibilaldiaren iraupena 4 bat ordukoa da. Irteera goizeko 8etan, herriko plazan izango da eta Beunderaino kotxez joango da.

Jubilatuak eskursioa

Ekainaren 17an, goizeko 9etan irtenda herriko jubila-

tuek urteroko txango edo eskursioa egindo dute. Aurten Nafarroa aldera joateko asmoa dute, hain zuzen ere Lesakara, bertan dauden bi dorretxe ikustera.

Txangora joateko asmoa dutenak Udaletxean izena eman behar dute lehenbailehen.

San Joan sua

San Joan bezperan ohiko San Joan sua izango da herriko plazan. Iluntzeko 9etan hasiko da festa: arbola zutitu eta

Jaunartzeak

Maiatzaren 21ean, hiru neska-mutikok egin zuten Lehen Jaunartzea, eguerdiko 12etan izan zen Meza nagusian. Neska-mutikoak Neli Ferreira, Eneko Arzelus eta Olatz Aranburu izan ziren.

Sendotza

Ekainaren 4an, eguerdiko 12etan eman zen Meza Nagusian, lau neskek, Maitane Salsamendi, Alaitz Mazaga, Arantzazu Muñoa eta Itxaro Alustiza, Sendotzako Sakramentua hartu zuten Pagola jaunaren eskutik.

sua piztuz ondoren herriko haurrek dantza egingo dute eta festa amaitzeko gazta eta ardoa izango dira bertaraten den guztientzat.

Herri eskolaren festa

Ekainak 1, osteguna, herriko eskolako haurrak beren festa eguna izan zuten. Ospakizun hau arratsaldean hainbat joku eta jolas egin ondoren merienda batekin bukatu zuten. Segurako eta Olaberriko

haurrak ere Zerainean izan ziren festa egun honetan.

Eskola Txikien eguna

Datorren igandea, ekainak 11, eskola txikien eguna izango da Albizturren. Egun osoko festa izango da. Zeraingo eskola ere, eskola txikien elkarteko partaide denez, bertan parte hartuko dute.

Mari Flor Mendizabal



Haur antzerki topaketa

Udalak eta Dar-Dar Produktzioak herriko lehenengo Haur Antzerki Topaketa antolatu du herri eskolako guraso elkartearen laguntzaz. Egitaraua ondorengo izango da:

Ekainak 14, asteazkena: Tolosako F. Samaniego Herri Ikastetxea.

Ekainak 15, osteguna: Iba-

rako Uzturpe Ikastola.

Ekainak 19, astelehena: Amezketako Zumadi Herri Ikastetxea.

Ekainak 20, asteartea: Legorretako Ugara Herri Ikastetxea.

Antzezlanak arratsaldeko 5etan hasiko dira eta sarrera dohainik izango da.

Antolatzaileek topaketa hau denen gustokoa izatea espero dute aurrerantzean urteroko kultur ekintza bihurtu dadin.

Topaketa hau jende guztia zuzenduta dagoenez antzerkiaz gozatzeko aukera paregabea izango da.

*Laida Oiarbide
Inko Mujika*

OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. Koleg. Zkia. 4371

Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- ✕ **Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda** mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.
- ✕ **Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto arazoen elektromedikuntza bidezko** tratamendua.

Ordutegia: 16:30etik 20:00etara. Aldez aurretik txanda eskatu

☎ 943 880 728 Garmendia Otaola 7 behea. BEASAIN

IBAI ONDO



AROTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurria

Mota guztietako arotzegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



Otegia-enea eta Majoriko festak

San Joan jaiak dagoeneko prest dituzte Otegia-enea eta Majoriko auzotarrek. Lau urte dira Otegia-eneako jaiak berreskuratu zituztela. San Joan suaren inguruan biltzen dira festak ospatzeko. Ekainaren 23tik 25era bitartean izango dira. Festa batzordeak antolatutako egitaraua duzue ondorengo lerrootan. Batzordekoek auzotar guztiei gogorarazi nahi die, batzordea irekita dagoela laguntza eta iritzi ezberdinak jasotzeko.

Ekainak 23, ostirala:

17:00etan: Txupinazoa eta jaietako ongieta.

17:00etan: Kros lehiaketa, 14 urtetik bitartekoentzat.

19:00etan: Sardina jana.

22:00etan: San Joan sua.

23:00etan: Dantzaldia Zapotxin Berri taldearekin.

Ekainak 24, larunbata:

10:00etan: Marrazketa lehiaketa 14 urte bitartekoentzat.



Eskulan eta arte erakusketa

Erakusketa berezia antolatu dute auzotarrek ekainaren 25erako. Majori plazako arkupeetan izango da eta Goierriko hainbat artistek beraien lanak erakutsiko dituzte. Bertan parte hartuko dutenak: margolariak: Celso Gomez eta Jose Antonio Santamaria galiziarak, Rosa Pagnon, Jose Luis Garcia, Jone Etxabe, Edurne Imaz, Ane Ormazabal, Garbiñe Vitoria eta Martin Arruabarrena; Jose Luis Azanza pilotagilea; tailistak: Eugenio Lazkano, Santi Ormaetxea, Josu Laso eta Manuel Salgado; Angel Elorza argazkilaria eta Luis Sanchez eta Iñaki Najera maketatzaileak. Edozein galdera eta zalantza argitzen laguntzeko aukera izango da bertan, artistekin hitz eginez.

12:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Majori plazan.

13:30ean: Laguntasuna Errondaila.

16:00etan: Haurren jolasak.

18:00etan: Arku tiraketaren erakustaldian, Majori plazan.

19:30ean: Euskal dantzak.

21:00etan: Herri afaria Muñoz tabernan.

23:00etan: Dantzaldia Zapotxin Berri taldearekin.

00:30ean: Mozorro lehiaketa.

Ekainak 25, igandea:

10:00etan: Eskulan eta arte erakusketa, Majori plazan.

11:00etan: Galiziako dantzak.

13:00etan: Ordiziako Jubilatuaren abesbatza.

16:00etan: Toka lehiaketa.

18:00etan: Aizkolariak, Majori plazan: Iñaki Azurmendi eta Angel Arrospide.

20:00etan: Dantzaldia Zapotxin Berri taldearekin.

23:00etan: Sardinaren lurperaketa.

LABURREAN


Uda 2000

Udan sartzearekin batera hainbat kirol ikastaro egiteko aukera eskaintzen du Majori Kiroldegia. Gehienak ekaina/uztaila bitartean izango badira ere badira batzuk iraila haseran ere. 6tik 16 urte bitartekoek arkuzko tiroa, tenisa, squasha, eskalada, piraguismoa, hipika, ur azpiko ekintzak, mountain bike, igeriketa, xake eta mendi irteerak bezalako ekintzak izango dituzte eta beste hainbeste 16 urtetik gorakoek ere. Argibide gehiagorako edo izena emateko 943889333 edota 943889353 telefono zenbakietara deitu besterik ez duzu.

Jakintza Ikastolako festak

Jakintza Ikastolaren eguna ospatuko da ekainaren 17an. Berau pilotalekuan izango da eta hasiera arratsaldeko 4,30etan izango du. Juanita Amundarainen omenez sortutako euskal kantutak taldearen emanaldia izango da lehenik eta behin eta jarraian, 2 urtekoak batxilergokoak amaitu arte, maila bakoitzak prestatu dituen saioak eskainiko dituzte. Saiook amaituta lunch modukoa izango da Arboledan bertaratzen diren guztientzat.

Aitor Calvillo



Plaza inguruko berritze lanak aurrera doaz

Herriko plaza nagusia orain zortzi-bat urte guztiz berritu bazen, orain plazatik frontoira bitarteko zatiari iritsi zaio txanda. Batzoki aurea eta Apaizetxe arteko tartea. Lehengo belardia neurri batean errespetatuko da, bolatokiaren ondoan eta elizaren kontra oinezkoentzako jolas-parkeak forma obalatua edukiko du, ziburu berriak eta gehiagorik jarriko direlarik. Gune honen zoruan pinu azal txikitua edo espuma antzeko goma biguna jarri oraindik erabaki gabe dago.

Elizak jasan dituen hezetasun arazoak saihesteko parkeko lurzorua drenatu eta saneatu egingo da, urak eta argiteria pasatzeko hodi berriak jartzeaz gainera. Orain arte belarrarekin zeuden arazoak konpontze aldera, hazia lehenbailehen ereingo da, izan ere festa garairako zelaia sendotuta egotea komeni baita, beste urteetan bezala erabat gorritu eta gal ez dadin. Eserleku batzuk ere eza-

rriko dira.

Obren esleipena edo adjudikazioa 12.099.838 pezetan egin da, eta Mendiola enpresa arduratuko da aurtengo uztailaren erdirako urbanismo lan hauek bukatzeaz. Lanen erritmoa aurrikusita be-



Maiatzaren 28an sendotza egin zuten gazteak

Oihane Arratibel, Iker Etxezarreta, Aritz Peñagarikano, Leire Maiora, Oroitz Maiz, Josu Elgarresta, Eneko Agirre, Joseba Elgarresta, Ekaitz Igartzabal eta Jon Irazustabarrena.

zala doa, eta izendatutako datarako amaitzeko ez dela aparteko eragozpenik egongo dirudi.

Ander atxilotu dute

Joan den maiatzaren 26an komunikabideek gabiriarrak gazte baten atxilotetaren berri eman zuten. Ander Geres-ta Azurmendi, Landetako Ander, frantziar poliziak Bordele inguruetan atzeman eta tiroketa baten ostean atxilotu eraman zuen, beste lagun batekin batera. ETako kide izatearen akusaziopean Fres-

nes-ko (Frantzia) espetxean sartu du epaileak. Espainiako Auzitegi Nazionalak Anderrren estradizioa eskatu du.

Eskola Txikien eguna Albizturren

Gipuzkoko herri txikietak eskolen festa eguna igande honetan, ekainak 11, ospatuko da Albizturren. Herriko Balentzategi eskolako ikasleek bertan parte hartuko dute, ikasturtean prestatutako abesti pare bat plazaratuz. Aurtengorako osatu duten egitarauaren arabera, goizeko 10etan herri guztiei harre-ra egingo zaie txalapartaren ttakun hotsez. Ondoren izango dute eskola bakoitzeko haurren emanaldiek tarte, bazkariarekin jarraitzeko. Arratsalde partean ere izango da zer ikusirik eta jolasik.

Emakumeen bazkaria

Urteroko legez aurtan ere antolatu da emakumeek elkarrekin egin ohi duten bazkaria, mahaian lasai eserita egun batean bederen gozatzeko, merezimendu osoz. Datorren igandean, hilaren 11n, izango da Kortan eta joateko asmoa daukanak dei beza bertara izena emateko (943 88 71 86).

Aimar Maiz

LABURREAN

- **Belar bolen** plastikoak ez dira irailera arte berriz bilduko, beraz bilguneetara ez atera. Orduan jakinaraziko da egutegia.
- **Festak antolatze**ko bilera dago ekainaren 15ean, osteguna, udaletxean, iluntzeko 8,30ak aldera.
- Txindata Musika Eskolan **matrikula** egiteko epea irekita dago, ekainaren 22 arte. Ormaiztegiko eskolara hurbildu behar du Hezkuntza Musikalean edo instrumentuetan izena eman nahi duenak, astegunetan arratsaldeko 4etatik aurrera.
- **Herri-kirol talde bat** sortu nahi da festetako saioa prestatzeko, eta beharbada urte osoan zehar mantentzeko. Parte hartu nahi dutenek aditzera eman.
- **Aralarko 14 orduetan** herriko koadrila batek parte hartu zuen. Agustin Asurabarrena, Manolo Redondo, Migel Mari Iztueta eta Joxe Luis Garmendia 15 orduz behetik sartu ziren helmugara. Udan Santiago bidea egiteko preparazio modura egin dute hau.

SEGURAN

LAISTER FAMILIABAKARREKO 12 ETXEBIZITZA



ERAIKITAKO AZALERA

Beheko solairua: 87,36 m²
Lehenengo solairua: 62,34 m²
GUZTIRA: 149,70 m²

INFORMAZIOA: 943 49 38 73

ERAGILEA:

ARIN ERAIKUNTZAK, S.L.

Mamuteko bulegoak, 5. solairua, 6 bulegoa
OIARTZUN

ARKITEKTOA:

as&Le
arquitectos asociados



**KOTXEENTZAKO
GARBIKETA
MOTA GUZTIAK**

Ospakizun
ezberdinetarako:
Ezkontzak...

10. Poligonoa, 18. Pabilioia
Salbatore - BEASAIN

☎ 943 16 18 47

Loinatz jai
zoriontsuak!

Larunbatean motokrosa Beasainen

Ekainaren 10ean arratsaldeko 5etan hasiko da Beasaingo 3. motokros proba. Entrenamenduak arratsaldeko 3etan hasiko dira. Sarrera 500 pezetan jarri dute helduentzat eta haurrek doan izango dute. Bi proba ofizial izango dira, alde batetik seniorrak eta bestetik junior eta jubenilak. Erakusketak modura beste bi proba izango dira alebiren lasterketa eta jauzien lehiaketa.

Euskadiko motokros txapelketako proba baliagarria da. Txapelketa honetako hirugarren proba izango da Beasaingoa, Gasteiz eta San Romangoen ondoren.

Barandiaran Zeramikak antolatzen du, Beasaingo Udala eta Euskal Motoziklismo Federazioaren Fly Group Motoklubarekin elkarlanean. Iturrioz eraikuntzak eta Indar ere laguntzaile izan dituzte. Azken honek lur saila eta instalakuntzen zati bat uzten die. Kartela atera ahal izateko eta sariak emateko beste hainbat babesleren laguntza ere izan dute.

Motokrosa baino gehiago superkrosa

Proba motokrosa baino gehiago superkrosa izango da, zirkuituaren kokapena eta luzeragatik. Motokrosak, beti ulertu den bezala, zirkuitua aldapan izatea eskatzen du: igoera, jaitsiera eta jauzi naturalekin. Ibilbide luzeagoa ere eskatzen du. Be-



saingo zirkuitua erabat laua da eta bertan lurrezko jauzi artifizialak egin dituzte, superkrosean egin ohi den bezala. Jauzi hauen zereginak bi dira: alde batetik ikusgarritasuna ematea, ikusleen gozamenarako, eta bestetik

partehartzaileen abiadura gutxitzea. Baina probari arrisku gehiago ere ematen dionez, partehartzaileen kopurua mugatua izango da. Zirkuituaren luzera 600 metro ingurukoa da.

Goierritar ugari

Euskadiko pilotorik onenek parte hartuko dute eta beraien artean hainbat goierritar izango dira. Seniorretan: Raul Bonilla eta Jon Jimenez beasaindarrak eta Heber Garmendia lazkaotarra. Jokin Barandiaran beasaindarra, berriz, lesionaturik dagoenez ez da irteeran izango. Junior eta jubeniletan: Xabier Jimenez beasaindarra eta Ioritz Garmendia lazkaotarra. Alebinetan (lehiatu ezin duteenez, erakusketak izango da): Asier Barandiaran beasaindarra eta Aimar eta Aritz Marcilla lazkaotarrak.

Herri-kirolak igandean

Izeta aita-semeek marka ahalegina egingo dute

Beasaingo Loinatz jaiei amaiera emateko, herri-kirol erakustaldi handia antolatu da, arratsaldeko 7etan, Barrendain plazan. Aizkolariak, trontzalariak eta harrijasotzaileak izango dira bertan.

Lehenengo lana, Goierriko bi aizkolarik egin beharko dute. Iñaki Azurmendi arriarandarraren eta Iñaki Aierbe ataundarraren txanda izango da.

Jarraian, Gipuzkoako trontza txapelketako finaleko partaideak arituko dira lehian: Aitor Esnaola eta Joxe Gabilondo, Iñaki Izeta eta Joxe Izeta, eta Iungenio Orbegoza eta Iñigo Orbegoza.

Harrijasotzaileen tartean, Izeta aita-semeak arituko dira. Bakoitza bere mailan, marka hausten saiaturiko dira.

Aitak, Joxe Ramon Iruretagoiena 'Izeta II.'-k, bi marka ahalegin egingo ditu: batetik, minutu bateko saioan, 100 kiloko harri kubikoarekin egingo du marka ahalegina, laguntzarik gabe; bestetik, 100 kiloko harri zilindrikoarekin.

Semeak, 14 urteko Hodei Iruretagoienak, ere 100 kiloko harriarekin egingo du marka ahalegina, bost minutuko txanda bakarrean.

Jaialdia amaitzeko, aizkolarien txanda izango da berriz ere. Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko lehia prestatu dute. Nafarroatik, Mindegia, Nazabal eta Larretxea arituko dira eta Gipuzkoatik, Olasagasti, Arrospide eta Peñagari-kano.

Gipuzkoako herri-kirol federazioak kontrolatutako saioa izango da Beasaingoa.

PSIKOLOGI KLINIKOA



José Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

943 887 221

610 020 041

BEASAIN



Elektragaiaik
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4

88 86 84

BEASAIN

Etxebizitzak

salgai

➡ Legorretan etxebizitza salgai. Dena berria. 943806404.

➡ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

errentan

➡ Apartementua alokagai Laredon. Hondartza ondoan. 943795280.

Ibilgailuak

salgai

➡ Mobylette motorra salgai. Egoera onean. Motorrez ondo. 25.000 pezetan. 943162510.

➡ Land Roverra salgai. 88 ligero diesela. BI-AC. 943801107 (Joxe).

➡ Yamaha TZR 50 c.c. motorra salgai. Extrekin. Ongi zaindua. Prezio onean. 667239378.

➡ Opel Astra familiarra salgai, turbo diesela. 50.000 km. SS-AW. 609775000.

➡ Volkswagen Golf GTI autoa salgai. BI-BC matrikuladuna. 943801802. Xabier. 21:30etik 22:00etara deitu.

Animaliak

salgai

➡ Artzai txakurra salgai. 8 hilabetekoa. 943885102.

➡ Setter arrazako txakurkumeak salgai. 943887617.

➡ Setter ingeles txakurkumeak salgai, pedigree oso onekoa. 667 955443. Aitor

➡ Cocker hispaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943886164.

opari

➡ Txakurkumeak oparitzen dira. 943883804.

➡ Katakumeak opari. 600 648788.

➡ 4 katakume, 'lehoi txikia' itxurakoak, opari. 15 egun ingurukoak. 943 880402.

➡ Txakurra oparitzen da. Artzai eta arratoi txakurren nahasketa. 943886674.

Bestelakoak

salgai

➡ Movil-home bat salgai, Hondarribiako kanpin batean. 2 logela, jangela, garbigailu eta guzti. Jatorduetan deitu: 943 16 08 53.

➡ Conver 13, karro denda salgai. Bi abantzekin. Denetik du. Prezio interesgarria. 943886788.

➡ Auto telegidatua salgai. Mega desert racer markakoa. Berria. 10.000 pezetan. 667239378. 3etatik aurrera deitu.

➡ 2 logelako kanpina salgai. 50.000 pezetan. 943 886521.

➡ Negurako egurra, txikituta, nahi baduzu, deitu gaur telefonon honetara: 943 161638. Etxetara eramaten da.

opari

➡ 1996. urtetik gaurdainoko Euskaldunon Egunkariak oparitzen dira. Beste euskal aldizkari eta liburu batzuk ere oparituko zaizkio Egunkariak eramaten dituenari. 943 88 90 53.

Lana

➡ Neska gaztea eta euskalduna behar da tabernan zerbitzari gisa lan egiteko. 943880000.

➡ Emakume euskalduna behar da Beasainen etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 943888735.

➡ Beasainen neska bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. 943888751.

➡ Mutil gazte bat behar da igeltsaritza lanerako. 943889576.

➡ Neska euskaldun bat behar da asteburuetan kamarera bezala lan egiteko, jatetxe batean. 943880044.

➡ Sukaldari edo tabernari bat behar da Ordiziako taberna baterako. Euskalduna eta ahal bada goierritarra. 943160471.

➡ Pertsona euskalduna behar da Araman orduka etxeko garbiketari lanak egiteko. 696005643.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

IGELTSERO LAGUNTZAILEA

Goierri. Erref.: 32418/7

TORNERO KONBENTZIONALA

Tolosan. Erref.: 32742/2

10 INKESTATZAILE

Donostian. Erref.: 31849/3

DENDARIA

Goierri. Erref.: 32990/1

KONTRATISTA - PROMOTOREA

Donostian. Erref.: 33846/1

GALDARAGILEA - SOLDEATZAILEA

Tolosan. Erref.: 33533/2

PLADUR JARTZAILEA - ESKAIOLISTA

Donostian. Erref.: 33301/7

KALITATE ZUZENDARIA

Tolosaldean. Erref.: 31764/1

2 TELEOPERATZAILE

Donostian. Erref.: 32999/2

KOMERTZIALA (Automobil arloa)

Donostian. Erref.: 31909/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

Etxebizitzak

salgai

➡ Legorretan etxebizitza salgai. Dena berria. 943806404.

➡ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

errentan

➡ Apartementua alokagai Laredon. Hondartza ondoan. 943795280.

Ibilgailuak

salgai

➡ Mobylette motorra salgai. Egoera onean. Motorrez ondo. 25.000 pezetan. 943162510.

➡ Land Roverra salgai. 88 ligero diesela. BI-AC. 943801107 (Joxe).

➡ Yamaha TZR 50 c.c. motorra salgai. Extrekin. Ongi zaindua. Prezio onean. 667239378.

➡ Opel Astra familiarra salgai, turbo diesela. 50.000 km. SS-AW. 609775000.

➡ Volkswagen Golf GTI autoa salgai. BI-BC matrikuladuna. 943801802. Xabier. 21:30etik 22:00etara deitu.

Animaliak

salgai

➡ Artzai txakurra salgai. 8 hilabetekoa. 943885102.

➡ Setter arrazako txakurkumeak salgai. 943887617.

➡ Setter ingeles txakurkumeak salgai, pedigree oso onekoa. 667 955443. Aitor

➡ Cocker hispaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943886164.

opari

➡ Txakurkumeak oparitzen dira. 943883804.

➡ Katakumeak opari. 600 648788.

➡ 4 katakume, 'lehoi txikia' itxurakoak, opari. 15 egun ingurukoak. 943 880402.

➡ Txakurra oparitzen da. Artzai eta arratoi txakurren nahasketa. 943886674.

Bestelakoak

salgai

➡ Movil-home bat salgai, Hondarribiako kanpin batean. 2 logela, jangela, garbigailu eta guzti. Jatorduetan deitu: 943 16 08 53.

➡ Conver 13, karro denda salgai. Bi abantzekin. Denetik du. Prezio interesgarria. 943886788.

➡ Auto telegidatua salgai. Mega desert racer markakoa. Berria. 10.000 pezetan. 667239378. 3etatik aurrera deitu.

➡ 2 logelako kanpina salgai. 50.000 pezetan. 943 886521.

➡ Negurako egurra, txikituta, nahi baduzu, deitu gaur telefonon honetara: 943 161638. Etxetara eramaten da.

opari

➡ 1996. urtetik gaurdainoko Euskaldunon Egunkariak oparitzen dira. Beste euskal aldizkari eta liburu batzuk ere oparituko zaizkio Egunkariak eramaten dituenari. 943 88 90 53.

Lana

➡ Neska gaztea eta euskalduna behar da tabernan zerbitzari gisa lan egiteko. 943880000.

➡ Emakume euskalduna behar da Beasainen etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 943888735.

➡ Beasainen neska bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. 943888751.

➡ Mutil gazte bat behar da igeltsaritza lanerako. 943889576.

➡ Neska euskaldun bat behar da asteburuetan kamarera bezala lan egiteko, jatetxe batean. 943880044.

➡ Sukaldari edo tabernari bat behar da Ordiziako taberna baterako. Euskalduna eta ahal bada goierritarra. 943160471.

➡ Pertsona euskalduna behar da Araman orduka etxeko garbiketari lanak egiteko. 696005643.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

IGELTSERO LAGUNTZAILEA

Goierri. Erref.: 32418/7

TORNERO KONBENTZIONALA

Tolosan. Erref.: 32742/2

10 INKESTATZAILE

Donostian. Erref.: 31849/3

DENDARIA

Goierri. Erref.: 32990/1

KONTRATISTA - PROMOTOREA

Donostian. Erref.: 33846/1

GALDARAGILEA - SOLDEATZAILEA

Tolosan. Erref.: 33533/2

PLADUR JARTZAILEA - ESKAIOLISTA

Donostian. Erref.: 33301/7

KALITATE ZUZENDARIA

Tolosaldean. Erref.: 31764/1

2 TELEOPERATZAILE

Donostian. Erref.: 32999/2

KOMERTZIALA (Automobil arloa)

Donostian. Erref.: 31909/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401



AEKren txiste lehiaketako irabazleak

Goiztiri AEK antolatutako IX. txiste eta pasadizo idatzietan irabazleak suertatutakoak dituzue argazkian agertzen diren hauek. Goierriko AEKko ikasleek aukeratutako 3 txisterik onenak 'Abanikodun beltza', 'Meatzariak' eta 'Arkakusoak' izendunak izan dira. Saridunak, berriz, Belen Goñi eta Ordiziako Santa Ana ikastetxeko gaueko taldekoak izan dira, azken hauen bi txiste hautatu direlarik. Sariak bina afari Olaberriako Zezilio Enean eta Beasaingo Artzai Enean eta Arrizarren.

Ekainaren 19tik 24ra, Gerhard Bahr euskaltzaleari buruzko erakusketa, Udaletxean. Ordutegia: astegunetan, 17:00etatik 18:30era eta larunbatetan, 12:30etik 14:30era.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Ekainak 18, Larraona-Kristinos (Urbasa).

Gipuzkoako Akuarelisten erakusketa Ordiziako Barrena Kultur etxean

Ekainaren 25era bitartean, ikusgai egongo da Ordiziako Barrena Kultur etxean Gipuzkoako Akuarelisten erakusketa. 1945. urtean sortu zen Acuarelistas Vascos eta noizean behin, kolektiboko partaideek beraien lanak erakusten dituzte, "atzean gelditu ziren ehunka lanen ondoriozko emaitza", diote elkartekoei. Ordiziako erakusketan ikusgai dauden lanen egileak hauek dira: Isabel Abrisketa, Isabel Apaola, Pilar Barba, Juan Carlos Cardesin, Jeanne Devoyon, Usua Gabarain, Teresa Iraola, Puri Lete, Rosana Mañoso, Jose Mensuro, Matilde Miranda, Enrique Otxotorena, Rosalinda Pablos, Jokin Arman, Jabier Sagarzazu, Rosa Maria Stinus, Anselmo Susperregi, Ramon Urain Latasa eta Arturo Vinuesa.

Urpinturaren abentureroak omen dira akuarelistak. "Urez pintatzea esperientzia zoragarria da, abentura lehiagarria benetan. Ez dio pintoreari ezin teknikak ematen paper zurian urez eta pigmentuz betetako pintzelada batek bezalako sentsaziorik, baina kontraordainez ezin prozedura piktorikok ez dio artistari Akuarelak bezain gutxi segurtatzen obraren emaitza", diote Akuarelista elkartekoei.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Ekainak 10-11: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 88 01 52.

Ekainak 17-18: Laurnaga

(Kale Nagusia, 2 - Ordizia) 943 88 18 28.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Haurtzaindegia-ludoteka

Zabalik urte osoan zehar:

- ✱ Haurtzaindegia: 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- ✱ Jantokia: 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- ✱ Haurtzaindegia-Ludoteka: 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- ✱ Karguroak: Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

IKASTEK AKADEMIA
2000ko uda

☎ 943 160 120
Joan Iturralde, 5
BEASAIN

Lehen eta bigarren hezkuntza, LH, DBH (ESO)

Matematika tailerra: ✓ Kalkulua ✓ Buruketak	Ikas-mikas tailerra: ✓ Arreta mantendu ✓ Memoria garatu ✓ Arrazoiketa landu ✓ Sormena garatu
Batzilergoa: ✓ Hizkuntz-ulermena ✓ Espresioaren lanketa ✓ Testu komentaketak ✓ 2000-01 ikasturterako prestaketa	Hizkuntza tailerra: ✓ Gaztelera ✓ Euskara ✓ Ingelera

Talde trikiak

Banako atentzia
2000-01 ikasturterako matrikula zabalik

Irakurketa
Irakurketa
Ulermena
Ortografia
Idazmena

IKASTEK AKADEMIA
2000ko uda

☎ 943 160 120
Joan Iturralde, 5
BEASAIN

Lehen eta bigarren hezkuntza (6-16 urte):

- ✓ Tailerrak
- ✓ Ekaineko azterketak
- ✓ 2000-01 ikasturterako prestaketa

Batzilergoa DBHO (LOGSE) I eta II (16-18 urte)

Humanitiskoa, zientifikoa, teknologikoa:

- ✓ Errekuperaketak
- ✓ Selektibitatea
- ✓ 2000-01 ikasturterako prestaketa

Unibertsitate maila:
Ekaina - Iraila azterketak

- ✓ Ingeniaritza
- ✓ Enpresaritza
- ✓ Fisika - kimika
- ✓ Farmazia

Auto EASO

Irabe industrialdea, 13 LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955



Zegamarrak

Sinforoso Alzolak utzi digu argazkia. Duela 34-35 urte inguruko argazkia da.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Esteban Arakama, Jose M. Larrea eta Esteban Atxa.

Bigarren ilaran: Jesus Alzaga, Antonio Alkaraz, Juan Kerejeta, Jose Kerejeta, Pako Sansimenea eta Pako Murgiondo.

Hirugarren ilaran: Teodoro Arizkorreta, Jose Arizkorreta, Juan Miguel Garcia, Pako Iraola, Leonzio Garmendia eta Jose Garmendia.



N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA



ZEGAMA
OKINDEGIA
*Eskuz egindako
ogi naturala*

943 80 10 66
Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta Ormaiztegiko Iñaki Erosle.

IDIAZABALEN TXALET ADOSATUAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN

- 3 logela.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza, lorategia.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.



INMOBILIARIA
adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

686 414 901 - 943 450 721



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN



e-posta: bkopiak@adegi.es

diseinu grafikoa
inpresio digitala
neurri handiko kartelak

publizitatea logotipoak biorrikoak
hiruorrikoak katalogoak aldizkariak
kolorezko inpresioak planoen kopiak
enkuadernaketak formato handiko
plastifikazioak fax-zerbitzu publikoa irudien
digitalizazioa (scanerra) elastiko inprimaketak
paper-lan teknikoak eta bulegoko materialak
formato handiko kartelak publikitatea logotipoak
biorrikoak hiruorrikoak katalogoak aldizkariak
kolorezko inpresioak planoen kopiak enkuadernaketak
formato handiko plastifikazioak fax-zerbitzu publikoa



BEGIRISTAIN KOPIAK

Erauskin plaza z/g (Urbi-etxea)
Tfnoa.: 943 16 09 74
Faxa.: 943 80 57 10
20200 BEASAIN

Urdaneta kalea, 18
Tfnoa.: 943 16 14 69
Faxa.: 943 16 14 69
20240 ORDIZIA



ordutegia
9:00 - 19:30
etengabe

uda hau
ANTZIZAR
KIROLDEGIAN

gozatu

j o l a s a l a k i r o l a ? h i h e u



BEASAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa
 Gasteia eta Kirol Departamentua
 Departamento de Juventud y Deporte



ANTZIZAR
KIROLDEGIA